KOSTUEN KONTABILITATEA

2014-2015 2.KURTSOA 1.LAUHILABETEA

SARRERA

HISTORIA

Kostuen ikerketa, zientzi gisa 1929an hasi zen EEBBetan, lehenengo krisi ekonomiko garaian. Enpresak beraien arteko leia zela eta kostuak baina merkeago saltzen hasi ziren. Horrela kostuak sakonago ikertzeko asmoa sortu zen. Europara 2.gerra mundialaren (1950) ondoren hasi zen eta hemen 60.70.hamarkadan.

ZENBAIT DEFINIZIO

- **KOSTUEN KONTABILITATEA**: Enpresaren jardueraren kostua kalkulatzea da helburu nagusia. Kontabilitate industriala ere deitzen zaio, garai batean soilik enpresa (industria) eraldatzaile edo industrialetan bakarrik kalkulatzen zirelako kostuak.Gaur egun berriz edozein jarduera ekonomikoren kostua kalkula daiteke, beraz izen hau ez da asko erabiltzen.

- **USTIAPENEKO KONTABILITATE ANALITIKOA**: Ustiapeneko kontabilitate analitikoak kostuez gain sarrerak edo alde komertziala ere barneratzen ditu, hau da kostuak eta sarrerak lotzen ditu. Beraz, kontuan hartzen da zenbat saldu den eta zenbatean (guk kontabilitate mota hau landuko dugu).

- **BARNE ETA KANPO KONTABILITATEA**: Kontabilitate analitikoa barne kontabilitatea da, enpresa barruan egiten delako, hau da, ez du harremanik kanpoaldearekin.Barne kontabilitatea soilik enpresako kide batzuk ezagutzen dute, ez da zabaltzen, ez da publikoa, sekretua da. Kontabilitate finantzarioa beriz kanpo kontabilitatea da, hau da, enpresak kanpoaldearekin duen harremana, bezeroekin, banketxeekin…

- **MANAGEMENT ACCOUNTING** (kudeaketa kontrola edo kontabilitatea (e/lab) edo zuzendaritza kontabilitatea (e/luz). Informazioa eta datuak biltzeaz gain, bildutako datuekin informazio sistema baten bitartez informazio hori baliagarri eginez enpresaren kudeaketa hobetzea du helburu. Guk iraganeko datuak hartzen ditugu kontuan analitikoan baina management accounting.ean etorkizuneko datuak ere hartzen dira kontuan (plangintza egin, datu historikoak jaso eta konparaketa egin).

- **Kontabilitate finantzarioaren (kanpo) eta analitikoaren (barne) arteko diferentziak**

- **Derrigortasuna:** Analitikoa askea da, ez dago inolako legerik, ez da derrigorra enpresarentzat eramatea. Finantzarioa enpresak derrigorrez egin behar du era zehatzean. (komeni da kontabilitate analitikoa egitea gure lehiakideen errendimendua ezagutzeko)
- **Dokumentuak:** Finantzarioko dokumenduak estandarrak dira, enpresa guztiek berdin egin behar dituzte. analitikoan berriz zeharo malguak dira dokumentuak, edozein paper da dokumentua, enpresak eginiko edozein kalkulu (ordenagailuz nahiz eskuz) dokumentua da.
- **Islatzen duten denbora**. Finantzarioak soilik iraganean zer gertatu den islatzen du, inoiz ez etorkizunean gertatuko dena. Analitikoak berriz iragana, oraina eta etorkizuna ere islatu ditzake (aurrekontuak ere egiten dira).
- **Epeak, Ekitaldiaren iraupena**. Finantzarioan epea urte batekoa da gehienez eta zehaztasunak du garrantzia. Konta analitikoan epeak laburragoak dira, normalean hilabetekoak eta laburragoak baita, lehenbailehen informazioa edukitzeko, arintasunak zehaztasunak baino garrantzi gehiago du. (Adibidez mahaiak ekoizten baditugu eta kostuak sarrerak baino handiagoak badira, dirua galtzen ari garela konturatuko gara berehala eta konponbidea bilatuko diogu).
- **Erabiltzaileak**. Finantzarioan ugari dira erabiltzaileak (enpresaren martxa axola zaie bezeroei, hartzekodueik, langileei, aziendari, akziodunei, enpresako kudeatzaileei) urteko kontuak publikoak baitira, merkatal erregistroan daude denen bezeroen…en eskura. Analitikoan soilik enpresako administratzaileak dira erabiltzaileak (gerente, administratzaile) enpresaren kontabilitate analitikoa barnekoa baita, sekretua.
- **Helburuak:** Kontabilitate finantzarioak helburu ekonomiko eta finantzarioak ditu. Finantzarioan enpresaren harremana bezeroekiko, hartzekodunekiko…guztiekiko islatzen da. Kontabilitate analitikoak berriz soilik helburu ekonomikoa du, galdu-irabaziak bakarrik axola zaizkigu, konta analitikoa galdu-irabazien egoera sakon bat dela esan daiteke.

IMPORTANTE



Kontabilitate finantzarioa	Kontabilitate analitikoa/Kostuen Konta/Barne Konta
Derrigorrezkoa da (esparru batzuk)	Erabat **askea** da (ez dago araurik), baina, enpresak erabakiak hartzeko garaian **tresna baliagarria** da
Eredu bat jarraitu behar	**Ez dago eredurik**
Tranpak egiten dira	**Ez** du zentzurik **tranpak** egitea
Aztertzen diren jarduerak **iragana** eta **oraina**	Aztertzen diren jarduerak **iragana, oraina** eta **etorkizuna**
Ekitaldia urte batekoa izaten da	**Epea hilabetekoa** izaten da normalean (badaude astekoak, 15 egun...)
Helburu finantzarioak ditu: bezeroak erosi duen, ordaindu duen, nola ordaindu... Helburua **zehaztasuna** da → Helburu ekonomikoak	**Helburua ekonomikoa** da: axola du zenbat erosi diguten, zenbat saldu dugun (sarrerak eta kostuak) **Helburua arintasuna** da: "baliagarriagoa da informazioa garaiz izatea eta osatua ez egotea, informazioa berandu eta osatuta izatea baino" (arintasuna zehaztasunaren aurretik)
Erabiltzaileak: edonor izan daiteke (Hazienda, akziodunak, bezeroak, hornitzaileak, langileak...)	**Erabiltzaileak enpresa barneko kudeatzaileak** dira. Ez zaio beste inori interesatzen konta analitikoa barne kontabilitatea baita
Informazioa publikoa da	**Sekretua** da (top secret). Espioitza egoten da.

- **Emaitzak**: kontabilitate finantzarioan arlo ekonomikoaren barruan 3 atal daude: a) ustiapeneko emaitza, b)ez ohiko emaitzak eta c)emaitza finantzarioa (akzioengatik edo burtsan lortutako irabaziak edo galerak). Kontabilitate analitikoan bakarrik ustiapeneko emaitzari eman zaio garrantzia (benetakoa), hau da, eguneroko jardueragatik lortutako irabazi edo galerak. Baina bi kontabilitate mota hauen ustiapeneko emaitzak ez dute zertan berdina izan, era ezberdinean kalkulatzen direlako.

Finantzarioan:Sarrerak-gastuak=ustiapeneko emaitza.

Analitikoan:Sarrerak-kostuak=ustiapeneko emaitza.

Hau da, kostuak eta gastuak ez dira beti berdinak. kostua ≠ gastua

Beraz, diferentzia sortuko da. Adibidez:

- Suposaketa: ezer bota aurretik egindako kalkuluak konta finantzarioan ez dira gastuak, baina, konta analitikoan, berriz, bai.
- Aukera kostua (erabaki bat hartzean aukeratu gabe uzten den hori): kontabilitate analitikoan (kostuen konta) erabiltzen dira
- Amortizazioak: hauek ere kostuak dira, baina, baita gastuak ere. Gatuak dira bai konta finantzarioan baita konta analitikoan ere, horrek ez du esan nahi

kopuru bera izango denik. Bi kontabilitateen artean gastuak ezberdinak izango dira. Adb: Konta finantzarioan fiskalki urte kopuru bat amortizatzea onuragarri zaigulako, eta konta analitikoan, aldiz, benetako amortizazioa izango da. Adb: makina batek enpresan iraungo dituen urte kopuruak

- **Kontabilitate finantzarioaren eta kontabilitate analitikoaren arteko harremanak**

- **Iturburua**: Konta finantzario eta analitikoen artean ordea harreman estua dago. Kontabilitate analitikoko datu gehienak finantzariotik lortzen dira (amortizazioak izan ezik), beraz iturburu nagusia finantzarioa da. Konta analitikoak ere finantzarioari zenbait datu pasatzen dizkio, adibidez produktu burutuen baloraketa.
  - **Harreman hori nola gauzatu?** harreman hori gauzatzeko **bi sistema** edo metodo daude:

    1) Monismoa: konta finantzarioa eta analitikoa **batera** eramatea. **Akats** bat du: kontzeptuak ez dira berdinak epeak ere ez bi kontabilitate motetan eta biak batera eramanez gero nahasketak ematen dira horregatik gaur egun enpresa haundietan geroz eta gutxiago eramaten da. Sinpleagoa eta merkeagoa da baina arazoak ekar ditzake. Honek ez du esan nahi enpresetan monismoa eramaten ez denik, baina, arazo zela eta dualismoa sortu zen

    2) Dualismoa: **bi kontabilitate motak aparte eramaten dira.** Datuak batetik bestera pasako dira lotura kontuen bitartez.

- **Zein gauza hartu behar dira kontuan konta analitikoa erabateko?**

  - Baldintzak:

  1) Kostua: Kontabilitate analitikoa eramateak kostu bat suposatzen du enpresarentzat (ez da dohain), beraz kostu hori hortik ateratako informazioaren baliogarritasunak konpentsatzen duen ikusi beharko dugu eramatea merezi duen ala ez ikusteko.

▪ **Harreman hori nola gauzatu?** harreman hori gauzatzeko **bi sistema** edo metodo daude:

1) Monismoa: konta finantzarioa eta analitikoa **batera** eramatea. **Akats** bat du: kontzeptuak ez dira berdinak epeak ere ez bi kontabilitate motetan eta biak batera eramanez gero nahasketak ematen dira horregatik gaur egun enpresa haundietan geroz eta gutxiago eramaten da. Sinpleagoa eta merkeagoa da baina arazoak ekar ditzake. Honek ez du esan nahi enpresetan monismoa eramaten ez denik, baina, arazo zela eta dualismoa sortu zen

2) Dualismoa: **bi kontabilitate motak aparte eramaten dira**. Datuak batetik bestera pasako dira lotura kontuen bitartez.

- **Zein gauza hartu behar dira kontuan konta analitikoa erabateko?**

- Baldintzak:

1) Kostua: Kontabilitate analitikoa eramateak kostu bat suposatzen du enpresarentzat (ez da dohain), beraz kostu hori hortik ateratako informazioaren baliogarritasunak konpentsatzen duen ikusi beharko dugu eramatea merezi duen ala ez ikusteko.

2) Organigrama: Kostuen kontabilitatea zenbat eta zehatzago izan eta maizago egin orduan eta garestiagoa izango da. Horregatik kontabilitate analitikoa ezarri aurretik enpresaren antolaketa razional bat egin behar da. Enpresaren organigrama funtzionala sakon ezagutu (sailak, betebeharrak, funtzioak, menpekotasunak …).

3) Ekoizpen prozedura zertan datzan ezagutu: ez badakigu produktua ekoizten ezingo dugu kostua kalkulatu, beraz, teknikarian laguntza beharko da.

- **Kostua zer da? (definizioa)**

Kostua gastu bat kostu izateko, gastu hori, ekoizpen prozedurari lotuta egon behar du. Gure helburuak lortzeko (outputak: produktu, zerbitzuak...) ezinbesteko ditugun baliabideen kontsumoak dirutan adierazita.

Gastua ezinbestekoa denean kostua izango da, bestela ez. Gainera, kostua oso kontzeptu subjektiboa da eta baloraketa dirutan egin behar da, baina, kostua baloratzeko hainbat irizpide daude.

Kostuak baina ez gastuak:

-Aukera-kostua (kostua): Ez du konta finantzarioak lekurik.Adibidez bankuan nituen 1000€ enpresa bat eraikitzen inbertitzen badugu, kostu bat dago, ez baitago dirua jada bankuan baina ez da gastua.

- Aldez

Inbertsio bat egiten denean enpresa batean, kontuta hartu beharko litzateke. Zein den inbertsio horren aukera kostua.

kontabilitate finantzarioaren gastu da benetako gutxiketa aldiz, kontabilitate analitikoarentzat kostuak dira aurreikusitako gutxiketak.

- Aldez kalkulatutako gutxiketak: txarrak jartzen diren gauzak aurrez kostu bezala kontuan hartzea(janari-denda). Kontabilitate finantzarioan janari hori bota arte ez da gastu kontsideratuko.

Gastuak baina ez kostuak: hastapen gastuak (enpresa sortzen deneko gastuak, ez dira kostuak ez baitute zerikusirik ohiko jarduerarekin)

Gastu eta kostuak: Amortizazioa: ez du zertan bi kontabilitate motetan berdina izan behar. Kontabilitate finantzarioan normalean irizpide fiskalen araberakoak izaten dira. Konta finantzarioan abantaila fiskala atera daiteke, analitikoan ibilgetuaren bizitza erabilgarriaren arabera amortizatu behar da, ez du zentzurik gure burua engainatzeak.

INBERTSIOA, GASTUA ETA ORDAINKETA (desberdindu behar)

- **Inbertsioa:** (makina erosi): Amortizazioaren bitartez lehen inbertsioa zena gastu bihurtzen da.
- **Gastua** (makina alokatu): Amortizazioa ordaintzen ez den gastu bat da, enpresan gelditzen da dirua etorkizunean beste inbertsio bat egiteko.
- **Ordainketa:** Ordainketa konta finantzarioan soilik erabiliko den kontzeptua da.
- **Sarrerak**: guk fakturatzen duguna dira. Gero guk hori noiz edo nola kobratuko dugun ez da konta analitikoaren esparrua.
- **Kobrantzak**: enpresak emandakoaren truke jaso beharrekoa

KONTABILITATE ANALITIKOAREN PROZEDURA NAGUSIAK (4 PAUSO) (Azterketan fijo!)

1. KOSTUAK SAILKATU: kostuak zein motatakoak diren identifikatu eta haien ezaugarriak
2. LEKURAKETA: kostuak non ematen diren ikusi, hornikuntza sailean, komertzialean…
3. KOSTUAK EGOTZI: produktu edo zerbitzu bakoitzari dagokion kostua ezarri.
4. SARRERAK BARNERATU: zenbat saldu den eta zenbatean

1) KOSTUEN SAILKAPENA:

Espainiar kontabilitate plan zaharraren arabera:

- **Kanpoko kostuak**: kanpo kontabilitatetik, hau da, finantzariotik datozen kostuak dira (lan orduen kostua, lehengaiena…). Enpresa eta ingurunearen arteko erlazioa azaleratzen dute.
- **Kalkulatutako kostuak**: Guk geuk kontabilitate analitikoan geure kabuz kalkulatutakoak dira, batez ere amortizazioak.

- Jarduera motaren arabeako sailkapena: aldaketen aurrean kostuek duten portaeraren arabera (sailkapen nagusiena):

- **Kostu finkoak**: Jarduera edozein izanda ere berdin mantentzen diren kostuak. Gaur egun gehienak. Adibidez: langileen soldata (ekoizpenaren araberakoa ez denean), eraikuntzaren amortizazioa...

  Abantaila: Ekoizpena handia denean kostu finkoa unitate bakoitzeko merkea da.

  Desabantaila: Malgutasun falta, ekoizpena gutxitzean kostua berdina izango da. Beraz gutxiago ekoizten bada unitate bakoitzeko kostu finkoa handitu egingo da.

Jarduera	KF	KF/unitate bakoitzeko
0 produktu	10€	∞
1 produktu	10€	10€/produktuko
2 produktu	10€	5€/produktuko
....	....	....
10 produktu	10€	1€produktuko

- **Kostu finkoak uneka**: kostua une batean mantentzen da finko baina momentu batean aldatu egiten da berriz finko mantentzeko. Adibidez Azkoiti-Donosti autobusa antolatzea 50€ balio du, autobusean 50 pertsona sartzen dira, beraz, 50 pertsona baino gehiago sartzeko bigarren autobusa kontratatu behar da.

Jarduera (bidaiariak)	KF (Kostua guztira)	Bakoitzeko kostua
0	50€	∞
1	50€	50€/Pertsonako
2	50€	25€/pertsonako
50	50€	1€/pertsonako
51	100€	2€/pertsonako
100	100€	1€pertsonako

- **Kostu aldakorra**: Jardueraren arabera aldatzen diren kostuak dira, jarduerarik gabe ez dago kosturik. Adibidez ekoizpena handitzen bada lehengai gehiago behar ditugu beraz kostu handiagoa. Hiru motatako kostua aldakorrak daude.

  - **Proportzionalak**: Jarduera handitzean kostua proportzio berdinean handitzen da. Adb: lehengaien kontsumoa

Jarduera	KA (kostua guztira)	Bakoitzeko kostua
0 produktu	0	-
1 produktu	5€	5€/pertsona
2 produktu	10€	5€/pertsona
3 produktu	15€	5€/pertsona

Jarduera	KA (kostua guztira)	Bakoitzeko kostua
0 produktu	0	-
1 produktu	5€	5€
2 produktu	12€	6€
3 produktu	21€	7€

- **Progresiboak**: zenbat eta jarduera handiagoa izan, kostua handituko da, baina, ez proportzionalki, gehiago baizik. Taularen azalpena: txatarra. merkatuan eskaintza eskaria baino txikiagoa denean prezioa handitu egiten da produktu gutxi dagoelako.
- **Erregresiboak**: zenbat eta jarduera handiagoa izan, kostua handituko da, baina, ez proportzionalki, gutxiago baizik.

Jarduera	KA (kostua guztira)	Bakoitzeko kostua
0 produktu	0	-
1 produktu	5€	5€
2 produktu	8€	4€
3 produktu	9€	3€

- **Kostu mixtoa**: Zati finko bat eta zati aldakor bat konbinatzen duten kostuak dira. Adibidez, argiaren erreziboan minimo bat ordaindu behar da (k finkoa) eta gure kontsumoaren arabera gehiago edo gutxiagoa (k aldakorra). Autoagatik zergak ordaindu behar dira (k finkoa) erabili edo ez eta erabileraren arabera gasolina (k aldakorra).

Jarduera	KF	KA	Kostua guztira	Bakoitzeko kostua
0 produktu	10€	-	10€	∞
1 produktu	10€	5€	15€	15€/produktuko
2 produktu	10€	10€	20€	10€/produktuko
3 produktu	10€	15€	25€	8,3€/produktuko

Nola bereizi kostu erregresibo eta misto bat? Kostu aldakor regresiboa eta kostu mistoa desberdintzeko jarduera 0ko egoera ikusi behar da. Jarduerarik egon ez arren kostu finkoa existitzen bada kostu mistoa da. Jarduerarik ez dagoenean kostu finkorik ez badago kostu regresiboa da.

2) LEKURAKETA:

Kostuak non eman diren islatzen du eta lau sail nagusi bereizten dira: Hornikuntza, Eraldaketa (Sail eraginkorrak deitzen zaie, produktuaren ekoizpenean parte hartzen dutelako), Komertziala eta Administrazioa (Sail ez eraginkorrak dira, ekoizpenean parte hartzen ez dutelako).

- **Hornikuntza**: hornikuntza saila funtzionatzeji ezinbesteko diren gaiak sartzen dira. Adb: karretilak, ordenagailuak...

Norbaitek enpresan material/lehengai baten beharra sumatzen duenetik material hori eraldaketarako prest egon arte igarotako denbora da.

2 kostu ezberdin bereizten ditugu:

1) Lehengaien kontsumoa

2) Hornikuntza gastu bereziak: Lehengaiak eskuratzeak suposatzen dituen kostuak dira edo produktua eskuratu arteko gastuak. Behar dena zer den ikusi, hornitzaile onena zein den aztertu, eskaera egin, eskaeraren jarraipena egin... Hemen sartzen dira langileen soldatak, erabilitako ibilgetuaren amortizazioa, argindarra... Adibidez hornikuntza gastu bereziak txikiagoak izango dira lehengai enpresa gertu badago eta alderantziz. Horregatik, kasu batzuetan hornikuntza gastu bereziak produktua bera baino garestiagoak izaten dira.

(Zerbezaren adibidea: gaueko hamabietan terraza batean zerbeza bat edateagatik 3€ kobratzen digute, supermerkatuan 10 aldiz merkeagoa den bitartean, baina, ordu horietan supermerkatua itxita dago, supermerkatura kotxez joan behar gara...)

- **Eraldaketa**

Lehengaia lantzen hasten garenetik produktu bukatu bihurtu eta saltzeko prest egon arteko kostuak dira, hau da, ekoizpen prozesuko kostuak: langileen soldatak, ibilgetuaren amortizazioak edo alokairuak, argindar kontsumoa, tresneria... Produktu bukatua prest dagoenean amaitzen da eraldaketa.

- **Komertziala edo merkaturatzea**

Produktua saltzeko prest dagoenetik erosleen eskuetara iristen den arte igarotzen den denbora da. Produktu bukatuen biltegiratze, biltegian dauden langileen soldatak eta komisioa izango dugu, ondoren produktua salduko dugu (saltzaileen kostua), banatu egin beharko da (banatzearen kostua) eta egindako salmentaren kobrantzaren kostuak dira. Gastu guzti hauek komertzialeko kostuak dira.

- **Administrazioa**

Administrazioa enpresako kostu eta gora-behera guztiak kontrolatu, zuzendu, koordinatu eta kudeatzeaz arduratzen da. Hemen sartzen dira soldatak, amortizazioak....

3) EGOZPENA

Produktu edo zerbitzu bakoitzari dagokion kostua leporatzea da egozpenaren helburua. Kontabilitate analitikoaren etapa garrantzitsua da. Egozpena egiterako garaian kostuen portaeraren arabera kostu mota hauek ezberdintzen dira:

- **Kostu zuzenak:** Produktu bati zuzenean egotzi daitezkeen kostuak. Adibidez, mahai batek daraman egurraren kostua mahairi dagokio, edota mahai hori egin duen lantegiaren lana. Batzuk ez daude garbi, adibidez, mahai fabrikako atezaina edo gerenteak.
- **Zeharkako kostuak:** Zeharkako kostua da zuzenean ezin diogunean produktuari egotzi, ez baitakigu ze produkturi egotzi behar diogun. Arazo handienak sortzen dituzten kostuak dira eta hauek egozteko banaketa irizpide bat ezarri beharko da, kasu gehienetan oso subjetiboa izaten dena eta errealitatea desitxuratzen duena. Adibidez gerentearen soldata ezin zaio mahaiari zuzenean egotzi beraz zeharka egotzi behar zaio. Adibidez salmenta kopuruaren arabera, produkzioaren arabera...
- **Kostu erdi zuzena:** Bien arteko kostu bat da.Produktuaren ikuspuntutik zeharkako kostuak dira, baina, sailaren ikuspuntutik zuzena. Adibidez: eraldaketako arduradunaren soldata, ez ditu produktuak zuzenean ekoizten baina sailaren ikuspuntutik zuzena da, ez dugu zalantzarik.

4) SARRERAK BARNERATZEA

Sarrerak eta kostuak lotuta daude eta kontabilitate analitikoan biak ikertzen dira. Sarrerek gure produktuaren errendimentua nolakoa den ezagutzen laguntzen digute.

KOSTUEN BESTE SAILKAPEN BATZUK:

- **Kanpoko kostuak eta kalkulaturiko kostuak:**
  - **Kanpoko kostuak:** kanpo kontabilitatetik (konta finantzariotik) datozenak dira. Gehienak dira
  - **Kalkulaturiko kostuak:** gu geuk kontabilitate analitikoan kalkulatzen ditugunak dira, batez ere, amortizazioak (nahiz eta kontabilitate finantzarioan amortizazioak egin, kontabilitate analitikoan gure irizpidea jarriko dugu).

- **Sail eraginkorrak eta sail ez eraginkorrak**
  - **Sail eraginkorrak:** produktuaren ekoizpenean parte hartzen duten sailak dira (hornikuntza eta eraldaketa).
  - **Sail ez eraginkorra:** produktuaren ekoizpenean parte hartzen ez duten sailak dira (komertziala eta administratiboa)
- **Kostu kontrolagarri eta kontrolagaitzak**

- **Kostu kontrolagarria**: arduradunak kostu horretan eragiteko ahalmena du. Adibidez, hornikuntza saileko arduradunak aukera dezake zein lehengai mota erosi, eta horrela kostua handiagoa edo txikiagoa izango da.
- **Kostu kontrolagaitzak**: Arduradunak ez du kostu horrengan inongo eraginik. Adibidez, langileen soldatan eraldaketako arduradunak ezin du eragin, dagoeneko itxita dagoelako.

- **Kostu ekidingarriak eta ekidinezinak**

- **Kostu ekidingarria**: jarduera gutxitzen denean kostua gutxitzen denean, hau da, kostua ekiditea posible bada. Gehienak aldakorrak izan ohi dira.
- **Kostu ekidinezinak**: nahiz eta jarduera gutxitu kostu hori berdin berdin mantenduko denean. Gehienak kostu finkoak izango dira, salbuespen bezala kostu finkoak uneka.

- **Kostu diferentziala:**

Kostu diferentziala ez da berez kostu bat, baizik eta zenbat aldatzen den kostua jarduera aldaketa baten aurrean.

- **Ekoizpen prozeduraren sailkapena/motak:**


  Produktu mota bat egiten duen ekoizpena (ez ohikoa): Produktu bakarra badago dauden kostu guztiak produktu horri egotzi behar zaizkio, beraz, kostu guztiak zuzenak dira. Kostuak kalkulatzeko errazena da.

  Produktu mota bat baina gehiago egiten dituen ekoizpena: egoera ezberdinak bereizten dira:

- **Antzeko garrantzia duten produktu ezberdinen ekoizpena:** Produktu desberdina izan arren antzeko garrantzia badute (adb kotxe modelo ezberdinak, denak kotxeak dira). Kasu honetan zeharkako kostu eta zuzenak banatzerakoan arazoak izango genituzke.
- **Segidazko prozedura:** sail batek lan bat egin eta ondoren berak egindako lana bigarren sailari pasatzen dio, eta bigarren sailak hirugarren sailari... Hortaz, sail baten outputa beste sailaren inputa da. Sailak kateatuta doaz nolabait esateko. Adibidez, Enpresa batean burdina urtzen da, hurrengoan burdina urtzen da, bestean moztu egiten da…
- **Elkarrekiko ekoizpena:** Produktu bat baina gehiago egiten da baina denek ez dute garrantzi berbera. Guk produktu nagusi bat egin nahian azpiproduktu batzuk sortzen dira garrantzi gutxiago dutenak. Adibidez, zerrategi batean piñuzko oholak dira gure produktu nagusia baina ekoizpenean sobratzen diren egur puxketekin konglomeratua sortzen da.

KOSTU MOTAK

Zeintzuk dira egituren desberdintasunak? Egitura guztietan kostu guztiak barneratzen dira, baina, era deberdinetan. Ex dago egitura on edo txarrik, egokiak edo desogokiak baizik. (Azterketan ez jarri a,b..., baizik eta adierazi)



KOSTUEN EGITURA

Kostuak kalkulatzeko era desberdinak daude eta era bakoitza egoera baten aurrean egokiena eta beste egoera baten aurrean ezegokiena izan daiteke. Beraz, lehendabizi egoera aztertu eta gero egoera horren aurrean komenigarriena den egitura aukeratuko dugu. Beharbada egoera bat bi egitura ezberdinez aztertu ezkero bi ondorio ezberdinetara eraman gaitzake.

Egitura guztietan azkenean kontzeptu guztiak barneratzen dira, ekoizpen kostuan barneratu ez duguna margeneten barneratu beharko da.

EGITURA MOTAK (orden historikoan)

EGITURA	**EKOIZPEN KOSTUA**	**MARJENETATIK**	
		PROD.	OROKORRA
Full cost	1+2+3+4	-	-
Egitura funtzionala	1+2	3*	3*+4
Direct cost	1a+2a	3a	1b+2b+3b+4
Direct cost aurreratua	1a+2a	3a+1b1+2b1	1b2+2b2+3b+4
Koatu zuzenak (bertsio orokorra)	1a1+1b1+2a1+2b1		1a2+1b2+2a2+2b2+3+4
Kostu zuzenak (1bertsio)	1a1+1b1+2a1+2b1 +3a1+3b1		1a1+1b1+2a2+2b2+3a2+ 3b2+4
Kostu zuzenak (2bertsio)	1a1+1b1+2a1+2b1 +3a1+3b1		1*a2+**1*b2**+2*a2+**2b2**+3 a2+**3b2**+4

- **FULL COST (KOSTU OSOA):** ekoizpen kostuan kostu guztiak barneratzen ditu. Beraz marjenetatik ez dugu ezer kenduko. 70/80 harmarkada arte hau egiten zen hemen.

  - Abantailak: produktu bakarra dagoenean, ondo funtzionatzen du. **Prezioak ezartzeko erabaki onena da.**

  -Akatsak: produktu bat baino gehiago ekoizten bada full costinak arazoak sortzen ditu, kostu finko eta zeharkakoak barneratzen direlako eta horiek produktu ezberdinen artean banatu beharko dira, beraz askotan banaketa hori zeharo artifiziala sorta daiteke.

  -Jatorria: mundu guztian erabiltzen dira, baina, erdialde europan erdialde europan(Alemanian,Frantzian...) erabili izan ohi da.

- **EGITURA FUNTZIONALA:** Egitura espainiarra da, 68ko planean azaltzen da eta munduan zehar ez dago oso zabaldua.

ditugu, gerta badaiteke kostu hori produktu bakoitzeko dela produktu bakoitzekoan jarriko dugu. Beraz ez die kostu finko edo aldakorrei jaramoik egiten.

- Akatsak: hemen ere banaketa artifizialak daude.

- **DIRECT COST:** berriagoa da, 70-80.harmarkadan iritsi zen hona. KONTUZ ez du kostu zuzenekin zerikusirik. Kostu aldakorrekin du zerikusia.

  - Abantailak: Ekoizpen kostuan hornikuntza eta eraldaketaren zati aldakorrak sartuko dira, produktu bakoitzeko marjenetatik komertzialeko aldakorrak deskontatuko dira eta marjen orokorretik kostu finko guztiak deskontatuko ditugu. Ondorioz, kostu finkoak ez dira produktuetan banatzen,beraz, banaketarik ez egiterakoan beti egia esaten dute (subjetibitatea kentzen da). Honen bidez ateratako emaitzak garbiak dira eta edozein egoeraren aurrean egiturarik garbiena da. **Erabakiak hartzeko erabaki onena da**

  - Akatsak: Ekoizpen kostuan daukagun informazioa oso txikia izatea du desabantaila, normalean eraldaketan ez dira kostu aldakor asko egoten enpresa normal batean eta hornikuntzako aldakorrak batez ere lehengaien kontsumoa izango genuke. Lehengai kontsumoa txikia bada gure ekoizpen kostuak ia ez du baliorik edukiko eta beharbada ez du zerikusirik izango enpresak duen kostuarekin. Adb txorizoen plastikoa egiten duen enpresaren ekoizpen kostua oso oso txikia izango da eta direct costina erabiltzea ez da egokia izango.

- **DIRECT COST AURRERATUA:** Eskema klasikotik egindako hobekuntza bat da (Abantailak eta akatsak Direct- Cost-en ia berdina dira, baina, Direct Cost aurreratuak hobekuntza batzuk ditu marjenetik). Hornikuntza eta eraldakeko kostu aldakorrak bereizteko gauza garenean erabiliko da hauek ekoizpen kostuan barneratuz. Ondorioz marjen orokorrean KF zeharkakoak egongo dira eta administraziokoak.
- **KOSTU ZUZENAK:**Kostu zuzenak ez dute inongo arazorik emango, enpresak kostu zuzen asko baditu eta islatuak badaude oso erabilgarria eta argia izan daiteke. Ekoizpen kostuan hornikuntza eta eraldaketako kostu zuzenak sartuko ditugu. Kostu zuzenak nabariak direnean erabiltzen da. Marjenetatik orokorretatik hornikuntza eta eraldaketako zeharkakoak kenduko ditugu eta komertzial eta administraziokoak.
- **Kostu zuzenak 1ºbertsioa:** Ekoizpen kostuan kostu zuzen guztiak barneratuko dira eta merjen orokorretik zeharkako guztiak.
- **Kostu zuzenak 2ºbertsioa:** Banan banan aztertuta banaketa irizpideak nahiko normalak badira, banaketa arazo gehiegirik gabe egin badaiteke ekoizpen kostuan sartuko ditugu kostu finko zeharkakoak. Arazoak ematen baditu berriz 1ºbertsioaren berdina izango da.

- **Adibidea:** egoera bat planteatu eta egitura ezberdinen bidez aztertu.

Enpresa batek 3 produktu saltzen ditu (A, B, C): A salmentak 300€, B salmentak 400€, C salmentak 500€. Ekoiztutako guztia salduko du.

Hornikuntzako kostu aldakorra: A 50, B 100, C 150
Eraldaketako kostu aldakorrak: A 100, B 140, C 200
Komertzialeko kostu aldakorrak: salmenten %10
Kostu finkoak (orokorrak): 272€

DIRECT COST

	A	%	B	%	C	%	GUZTIRA
Salmenta	300€	100	400€	100	500€	100	1200€
Salmenten ekoizpen (Hornikuntza aldakorra)	50€		100€		150€		
Salmenten ekoizpen (Eraldaketa aldakorra)	100€		140€		200€		
Ekoizpen kostua	150€	50	240€	60	350€	70	740€
Estaldura margen industriala	150€	50	160€	40	150€	30	460€
Kostu komertzial Aldakorra	-30€	10	-40€	10	-50€	10	-120€
Estaldura margen Komertziala	120€	40	120€	30	100€	20	340€
Kostu finkoak							272€
GUZTIRA							68€ (mozkinak)

Hiru produktuak errentagarriak dira ekarpen positiboa egiten baitute, enpresaren kostu finkoak estaltzen laguntzen dutelako, beraz, hiru produktuak interesgarriak dira, egitura honen bidez a eta b dira interesgarrienak, baina, a esan dezakegu b baino interesgarriagoa dela ekarpen handiena egiten duelako (%-tan)

DIRECT COST AURRERATUA: Hornikuntza eta Eraldaketako kostu zuzenak bereiztu

Hornikuntzako kostu finkoak (zuzena) eta eraldaketakoak A 50€, B 15€, C 25€

Kostu finkooak guztira 272€
Kostu finko zuzenak - 90€
Kostu finkoak zeharkakoak 182€

Direc Cost aurreratua egiteko aukera daukagu hornikuntzako eta eraldaketako kostu finkoak ezagutzen baitira.

	A	%	B	%	C	%	GUZTIRA
Estaldura margen Komertziala	120€	40	120€	30	100€	20	340€
-(H+E)	-50€		-15€		-25€		€ -90€
Kostu finko zuzenak							

~~zuzenak~~				
Estaldura margen garbia	70€	115€	75€	250€
- Zeharkako kostu finkoak				-182€
EMAITZA				68€(mozkinak)

Direct Costekin onena zirudien produktua (A), Direct Cost aurreratuarekin ikusten dugu ez dela horrela, produktu horren ekarpena ez da hain handia horniketako eta eraldaketako kostu handiak dauzka eta.

EGITURA FUNTZIONALA

182€ horietatik,
- (H+E) zeharkako kostu finkoak 74€
- Komertzialeko zeharkako kostu finkoak 24€
- Administrazioko zeharkako kostu finkoak 84€

Kostu horiek banatu egingo ditugu, administraziokoak ezik:
- (H+E)-ko kostu finkoak, (H+E)-ko kostu aldakorren arabera banatuko ditugu.
- Komertzialeko zeharkako kostu finkoak, salmenten arabera banatuko ditugu.

	A	B	C	GUZTIRA
Salmentak	300	400	500	1200€
(H+E) aldakorra	150	240	350	740€
(H+E) finko zuzenak	50	15	25	90
(H+E) zeharkako finkoa	15	24	35	74
- Salmenten ekoizpen kostu	-215	-279€	-410	-904
rgen industriala	85	121	90	296
- Kostu komertzial (Aldakorra)	-30	-40	-50	-120€
- Kostu komertzial (finkoa)	-6	-8	-10	-24€
GUZTIRA	-36	-48	-60	-144€
rgen komertziala	49	73	30	152
- Administrazioko kostuak (Ez dira banatzen)				-84
Mozkina				68

Kasu honetan, hiru produktuak dira interesgarriak, baina, hemengo informazioa ez da beti egia.

FULL COST: egitura egokia produktu bakarra baldin badago

Administrazioko kostu finkoak (salmentako arabera) 84€

				ZTIRA
mentak	)€	)€	)€	)0€

-E)	5€	9€	0€	4€
omertziala)	€	€	€	4€
lministrazioa)	€	€	€	€
almenta ekoizpen kostua	2€	5€	5€	32€
IAITZA	?	?	lera)	? (mozkinak)

Egitura guztietan mozkin berdina lortzen da. Kasu honetan, A eta B errentagarriak dira eta C-k galerak, baina, hau ez da egia. Honek esaten du hobe dela C produktua ez egitea, baina, DIRECT COST-ekin C produktuak estaldura positiboa duelako 100€-ko ekarpena du enpresako kostu finkoak estaltzeko. (Ez dago erlaziorik kostuak banatu ditugun irizpideen eta kostuen artean, gure asmakizunak izan dira)

KOSTU FINKOEN EGOZPEN ARRAZIONALA

Kostu finkoa ez da jardueraren arabera aldatzen, baina, bai aldatzen da produktuko kostu finkoa. Jarduera ezberdinen aurrean, kostu finkoak banatzen dira. Sistema horretan, nahiz eta jarduera aldatu, kostu finkoak produktuko berdin jarraituko du.

Horretarako kostu aldakorrak berdin mantentzen dira, baina, kostu finkoak egondako jardueraren proportzioan egotziko dira. Falta dena gero marjenetan kenduko da.

Helburua: sistema bat non jarduera aldatu arren, bakoitzeko kostua mantentzen da.

ITURA	OIZPEN KOSTUA	ARGEN OROKORRA
Full cost (Egozpen arrazionala)	$(1a+2a+3a)+(1b+2b+3b+4)\ \frac{B.I}{I.N}$	$(1b+2b+3b+4)\ \frac{I.N-B.I}{I.N}$

B.I > I.N — Gain-jarduerako sarrerak

B.I < I.N — Azpijarduerako kostua

B.I = I.N — Full cost arrunta

B.I (benetako jarduera)


I.N (jarduera normala)

ITURA	OIZPEN KOSTUA	ARGEN OROKORRA
Egitura funtzionala (arrazionala)	(1a+2a)+(1b+2b)	$(1b+2b\ \frac{I.N-B.I}{I.N} + 3 + 4$

GAIEN KOSTUAK EDO HORNIKUNTZA FUNTZIOA

Gaiak kostu aldakorrak dira, zenbat eta gehiago ekoiztu gai gehiago behar ditugu eta gehienetan kostu zuzenak izango dira badakigulako zer produkturi dagozkien.

- **Salgaiak**: saltzeko prest dauden produktuak dira. Erosi egin ditugu biltegiratzeko helburu komertzialarekin, hau da, erosi ditugun bezala salduko ditugu (eraldaketarik gabe)
- **Produktu bukatuak**: saltzeko prest daude, baina, guk geuk ekoiztu ditugu. Lehengaia hartu eta eraldatu dugu.
- **Produktu erdibukatuak**: produktu bukatu baten piezak edo atalak dira. Adib: kotxe baten motorra, baina, guk kotxeak saltzen ditugu (motorra ez dugu suelto saltzen)
- **Bideango produktuak**: erdi eginik dagoen produktu bat da, eraldaketaren erdian dagoena. Adibidez erdi egiñk dagoen auto bat.
- **Lehengaiak**: Produktu burutu bat egiteko ezinbestekoak diren osagaiak, hau da, produktu bat egiteko behar diren osagaiak dira.
- **Gai laguntzaileak**: adibidez, tornu bat martxan jartzeko lubrikatzailea kostu zuzena izango litzateke.
- **Alde bat multzo inkorporagarriak**: produktu erdibukatuak dira, baina, eroslearen ikuspuntutik. Gu bagara kotxea egiten dugunak guk motorra sal diezaiokegu beste enpresa bati, hori ekoizlearentzat,guretzat, produktu erdi bukatu bat da baina eroslearentzat,beste enpresarentzat ale eta multzo inkorporagarria da.
- **Kontsumo eta berjarpenerako gaiak**: kontsumorako gaiak kontsumitzen diren edozein gai dira (errekin kontsumigarriak,enpresa batean labea martxan jartzeko erregaia), eta berjarpenerakoa (ordezko piezak, zerbait ondatzen denean pieza hori ordezkatzeko eta ekoizpena ez gelditzeko).
- **Ontziki eta enbalajeak**: produktua barneratzen den ontzia da. Kostuak diren ala ez ikustea da gure lana. Ontzikia bueltatzen bada, guk ez dugu kosturik izango, baina, bueltatzen ez badira (puskatu,galdu...) hornitzaileak ontzikia kobratuko digu, eta kostu bihurtuko da. Kostu gehigarri bat izango da.



- **Hornikuntza bera**: arduradunak zerbaiten beharra sumatzen duen unetik, gai horiek enpresara iristen diren arte. Arduraduna biltegira joaten da eta zerbait falta dela ikustean, bulegora joan eta hornitzaile desberdinak ikusten ditu, ondoren, erabaki bat hartu eta eskaera egiten da. Askotan ez

da garaiz iristen eskaera, beraz, eskaeraren jarraipena egin behar da. Guzti horri, **hornikuntza funtzioa** deritzo.

- **Biltegiratzea**: Hornikuntzaren barruan **biltegiratzea** dago, gaiak iristen direnetik eraldatzea hasi arteko zatia da. Biltegia kudeatzeko behar diren kostu guztiak biltegiratzean daude, apalategiak, amortizazioak, ordenadorea...
  Biltegiratzeko (kudeatzeko) **lau sistema** daude:

Hornikuntza motak:

1. **Bapateko hornikuntza**: ia intuitiboki, inungo antolaketarik gabe egiten den hornikuntza da, hau da, momentuan erabakitakoa, edozein kopuru,edozein momentuan. Arduradunak ikusten du zer falta den eta eskaera bat egiten du. Sistema hau egokia da enpresa txikietarako, oso sistema sinplea eta merkea da (ondo funtzionatzen du), ez dago antolakuntza handien beharrik. Enpresaren tamaina handiagoa den arren, egitura sinple horrek arazoak ekartzen ditu.
2. **Hornikuntza sinkronizatua**: bai denbora eta bai kopuru mugatuak daude. Hau da, astean behin edohilabetean behin eskatuko dugu eta kopuruarekin gauza bera gutxienez kopuru bat eskatuko dugu, arau batzuk ezartzea kopuru eta denborei dagokienez. Adb: kamioi bat osatu arte.
3. **Hornikuntza sinkronizatua zihurtasunezko stock bat gordez**: badaezpadako stock bat gorde behar da. Enpresak izan dezakeen kalterik handiena enpresa geldi egotea (ekoizpen estaldura) da, kostu gehienak finkoak baitira, beraz, nahiz eta geldirik egon gastuak ditugu (ekidin behar duguna gairik gabe gelditzea da). Geldi egonda azkarrago doaz gastuak . Horretarako, stock bat mantentzen da hornikuntza mora honetan, edozer gertatuta, lehengai minimoak izateko ekoizpenak jarraitzeko. Enpresa handi gehienetan erabili ohi den sistema klasikoa da hau. Adb: enpresa batek tona bat gastatzen duela astero, beraz, enpresa honek, hiru astetarako stock-a izan behar du beti.
4. **Just in time**: Behar den momentuko hornikuntza. Batez ere erosmen ahalmen handia duten enpresetan ematen da. Hornikuntza funtzioa gure hornitzaileenesku geratzen da. Hau da hornitzailearen eginbeharra da enpresaren beharrak zein diren jakitea eta enpresari inoiz lehengairik ez faltatzea. Baldintzak oso zorrotzak dira, akats txiki batek gastu izugarriak sortu ditzake.

DEESKONTU MOTAK

- **Deskontu finantzarioak:** goiz ordaintzeagatik ematen den deskontua da . Zerbait erosi eta beranduago ordaindu beharrean gaur ordaintzen dugunean. Deskontua daukagu dirua aurreratzeagatik, guk aurreratzeak ere kostu bat suposatuko du, beraz lehengaia merkeago eskuratuko dugu, baina, dirua aurreratzeak kostua suposatzen duenez konpentsatu egitendira,

beraz, hauek ez ditugu kontuan hartuko. Deskontua gastu finantzarioa baino handiagoa bada aukera ona izango litzake

- **Deskontu kometzialak**: ohiko bezero izateagatik, sustapen berezi bat egitea adibidez. Benetako deskontua dela esan daiteke, gutxiago ordaintzen delako. Kontutan izango ditugu
- **Rapela:** Kopuru zehatz batera iristeagatik lortzen dugun deskontua da. Izaera komertziala dauka.

Hemen hiru egoera egon daitezke:

– Erosketen ikuspuntutik informazioa garaiz eskuratzen badugu, deskontua (Rappela) kontuan hartuko da.

– Ekitaldian zehar jasotzen ez bada informazioa, deskontua ez da kontuan hartuko (ekitaldia ixtean iritsi da informazioa).

– Informazioa ekitaldian zehar iristen da, nolabaiteko doikuntza egingo dugu, **sarrera komertzial bat** balitz bezala islatuko dugu.
Salmenten kasuan gu baldin bagara rapela eskaintzen dugunak, bezeroak iristen ez badira rapelera ez da kontutan hartzen baina beranduago konturatzen bagara kostu komertzial bat barneratuz konponduko dugu hori.

(Teoria: erosketa bat, kostua da? Ez, kostua ekoizpen-prozedurari lotuta egon bhar du. Erósketa bat kontsumoa izango da.)

SARREREN BALORAZIOA (biltegiko sarrerak nola baloratu):

1. **Faktura prezioa (erosketa prezioa)**: gure hornitzailea guregandik gertu badago ez dago arazorik, gureganatzeko kostuak ez direlako oso handiak, baina, nahi dugun produktua urruti badago, beraz, urrutitik ekartzen ditugun gaien prezioak igoera handia izango du eta faktura prezioetan ez dute zentzu handirik
2. **Faktura prezioa + gureganatze prezioa (sistema Espainiarra):** Espainiako kontabilitate finantzarioak aholkatzen duena. Gaiak kostu gehigarri gisa sartzen ditugu. <u>Abantaila</u>: gureganatze gastuak barneratzen ditu
3. **Faktura prezioa + gureganatze prezioa + hornikuntzako gastu bereziak (Sistema Frantsesa):**
   - <u>Abantaila:</u> erositako guztia kontsumitzen denean sistema oso ona da, sistema garbia da **kostu guztiak barneratzen** baititu, sistema espainiarra baino hobea (bukaerako izakinak ez ditugunean), baina,
   - <u>Eragozpenak (akatsak)</u>: erositako guztia kontsumitzen ez bada, hau da, bukaerako izakinak baditugu hornikuntza kostuaren zati bat biltegiratu egiten da eta beste ekitaldi batean sartzen ditugu gastu berezi bat suposatuz, zati bat biltegiratu egingo dugu emaitza faltsutuz.

IRTEERAK (biltegiko irteerak baloratzeko era desberdinak)

Konta finantzarioak soilik bi onartzen ditu (batez besteko prezio haztatua eta fifo) nahiz eta gehiago ikusiko ditugun. Besteak konta analitikoan erabil daitezke. KONTUZ baloraketa irizpideak dira. Kontabilitate finantzarioan urtean behin begiratzen da biltegia, uneoro begiratzen dira biltegiak. Zerbait sartzen edo iretetn denean eguneratu behar da. Etengabeko inbentarioa egiten da.

- **Batez Besteko Prezio Haztatua**: Biltegian sartzen den produktuen prezioekin batezbestekoa egingo da. Konta finantzarioan batezbesteko prezioa kalkulatzeko garaian izakinak urtean behin islatzen dira. Analitikoan ez du zentzurik horrek, egiten diren sarrera bakoitzeko batezbesteko

prezioa aldatzen joango da, ezin dugu urtebete zain egon gure irteera balioa zein den jakiteko. Sarrera berri bat dagoen bakoitzean BPH birkalkulatuko dugu.

- **FIFO (First In First Out)**: sartzen den lehena irteten den lehena izango da, zaharrena da aterako dena. Zertarako balio du? Fisikoki ez dugu sartu zen lehena hartzen, edozein hartu dezakegu, baina, baloraketa sartu ziren lehenengoetatik egiten da (Ez du zerikusirik gauzak usteltzea).
  Abantaila: biltegian baloraketarik zaharrenak ateratzen ditugunez, biltegiaren balioa eguneratua izango dugu.
  Eragozpena (akatsa): baloraketa egiterakoan prezio zaharrenetik abiatzen bagara gure produktu edo zerbitzuen kostuak prezio zaharkituen arabera kalkulatuko ditugu.

Konta analitikoak onartzen dituen irizpideak batezbestekoa eta fifoz gain:

- **LIFO**: gure baloraketa sartu ziren azkeneko prezioetatik abiatuko da (sartzen den azkena irtengo da lehenengo). Biltegira joan eta edozein hartuko dugu, baina, baloraketan azkeneko preziotik abiatuko gara.
  Abantaila: hornikuntza kostua/kontsumoa eguneratuta egongo da beti (FIFO-n alderantziz).
  Eragozpena (akatsa): Lehendabizi sartu den azkena ateratzen badugu, biltegiak irizpide zaharren arabera gelditzen dira baloratuta.
- **HIFO (Highest In First Out)**: izan genuen sarrerarik altuena aterako da lehendabizi.Sistema kontserbatzailea da (badaezpada ere gure kostuetan preziorik altuenak barneratu). Merkatuan prezio aldaketa asko eta azkarrak daudenean erabiltzen da eta inflazio garai batean hifo eta lifo gauza bera da, zenbat eta beranduago prezioak gero eta handiagoak izango dira.
- **NIFO (Next In First Out)**: oraindik gertatu ez den eragiketa baten arabera baloratzen da, hurrengo eragiketan espero den prezioaren arabera. Konta finantzarioan eskuratutakoa bakarrik kontabilizatzen denez hau ezingo litzateke erabili. Aurrekontu munduan asko erabiltzen da eta baita inflazio garaietan ere. Politika kontserbadorea da baita ere.
- **Kostu estandarra**: aurreikusitako prezioetan oinarrituta. Baloraketa guztiak berdin egiten dira, estandarraren arabera, berdin zaigu zein sartu den lehena edo azkena. Kalkuluak egiteko hobe da, sinpleena.
- **Kostu teorikoa**: Oinarri bezela aurreko ekitaldiko batezbesteko prezioa hartuta, gure itxaropenen arabera prezioa igo edo jetsiko dugu.

NOLA KONTROLATZEN DITUGU SARRERAK/IRTEERAK? (Inbentarioa, zein dokumentu)

Biltegiko irteera guztiak inbentarioen mugimendu orria edo izeneko dokumentuan azaldu behar dira nolabaiteko kontrola edo inbentarioa eramateko. Hori arduradun batek egin behar du.

- **Albaranak edo fakturak**: biltegian zerbait sartzen denean

  - **Albarana**: faktura bat da, baina, preziorik gabe. Eskaria osorik jaso den edo ez islatzen du.

  - **Fakturak**: dirutan adierazten da jaso dena. Albaranen arabera. Biltegietan fakturak ez dira erabiltzen, albaranekin nahikoa.

- **Irteera baleak**

  Lantegi handi batean langile batek zerbait behar duenean irteera bale bat sinatzen dio arduradunak, irteera baimenduko duen agiri bat, horrela, biltegitik atera dezake behar duenean.

- **Konprobaketa**

  Printzipioz etengabeko inbentarioen bitartez biltegia eguneratuta dago, baina, askotan izakinak falta ohi dira. Noizbehinka **inbentario fisiko** bat egin behar da, konprobatzeko gure datuak bat datozela biltegiko unitateekin. <u>Inbentario fisikoa egiteko moduak</u>:

  - **Inbentario tradizionala**: ezinbestekoa da biltegia zenbatzeko itxita egotea biltegia egun batzuetan, normalean urte bukaeran. Honek akats bat dauka, enpresa bat ixteak beraldiko zulo aedo kostu ekonomiko handia sortzen du , enpresa gehienetan kostu finkoak dira ia kostu gehienak beraz enpresako kostu gehienak finkoak izanik berdin dirauta eta ezer ekoizten ez denez zuloa segunduoro egiten da. Beraz geroz eta gehiago inbentario mota hau egin ordez:

  - **Inbentario rotatiboak**: biltegiak banan banan itxiko dira, x lehengaiaren biltegia itxiko da eta bukatzean berriro irekiko da y lehengaiaren biltegia itxiz. Horrela enpresa ez da itxi beharrik, gehienez jota norbaitek gai bat behar badu minutu batzuk itxaron beharko ditu. ez dugu lantegi guztia ixten, baizik eta biltegi zehatz bat.

- **Gaien gutxiketak**

  Enpresa batek zenbait gaiekin lan egiten badu, badaki bere garaian saltzen ez dena hondatu egiten dela (adibidez janaria: haragia...) ezin dira etengabe biltegiratu. Gutxiketak galtzen diren gai kopuruak dira.

  - **Gutxiketa motak:**

➢ **Aurrez kalkulatutako gutxiketak**: gure esperientziaz guk aurrez botatzea espero duguna. Guretzat kostuak dira. Baina, inondik ere ez dugu konta finantzarioan onartuko.

<u>Gutxiketa lehengaietan ematen baldin bada</u> (zenbait lehengai hondatu diren islatu nahi badugu) lehengaien kontsumo hori gehitu egingo da. Dagoeneko kostutan barneratuta egongo da (hornikuntza kostutan)

<u>Bideango produktuetan ematen baldin bada</u> marjen industrialetik deskontatuko da (bideando produktua prozedura industrial batean dago)

<u>Produktu bukatuetan ematen bada</u> marjen komertzialetik deskontatuko dira.

➢ **Benetako gutxiketak**: benetan bota behar dena ekitaldia amaitzean. Biltegiko baloraketan baja emango diogu.

- **Gerora kalkulatutako gutxiketak:** Suposatutako eta benetako gutxiketaren arteko diferentzia. Dohikuntza bat da. Gastuetan barneratutakoa dena ez bada bota enpresaren aldeko emaitza gehitu egingo da. Aldiz gehiago bota bada emaitzari kendu beharko zaio bere balioa. Guk 5 botatzea espero bagenuen eta 7 bota baditugu, gerora kalkulatutako gutxiketa 2kg izango da eta emaitzatik deskontatuko genuke, alderantziz guk 10 kilo espero bagenituen eta 7 bota baditugu emaitzan 3 produktu horien diferentzia gehituko dugu.

(ARIKETAK)

LANGILEEN KOSTUA

ZER DA LANGILEEN KOSTUA? Gure enpresako nominan dauden kostua da (enpresako kostu izateko ezinbestekoa da enpresako nominan egotea). Enpresaren nominan dagoen langilearen soldata langile kostua izango da eta ez dagoena kanpo zerbitzua (ETT batentzat lan egiten duena).

LANGILE KOSTU MOTAK:

Egozpenaren ikuspuntutik kostu zuzena (langileak zuzenean piezak ekoizten baditu), zeharkakoa (atezainaren soldata) edo erdi zuzena (tailer baten arduradunaren soldata. Sailarentzat zuzena da baina produktuen ikuspuntutik zeharkakoa izango da ez dituelako produktuak ekoiztuko) izan daiteke.

Jardueraren arabera kostu finkoak (langileak kopuru bat denboraren arabera kobratzen badu, soldata minimoa), aldakorrak (langileak ekoizpenaren arabera kobratzen badu) edo kostu mixtoa (KF eta KA) izan daiteke.

LANGILE KOSTUAREN OSAGAIAK:

Konta finantzarioaren nominaren zor aldeak arlo ekonomikoa islatzen du (kostuak) eta hartzeko aldeak arlo finantzarioa (zer zati ordatzen zaio langileei, gizarte segurantzari…). Nominaren zor aldeko elementuak:

- Soldata gordina: langileak kobratzen duena(soldata garbia)+ egindako atxikipenak (langileen kargurako gizarte segurantza etaerrenta aitorpenagatik atxikipena), hau da enpresarentzat kostua da.
- Soldata garbia: kenketa horiek egin eta gero langileak jasotzen duen soladata da.
- Enpresaren kargurako gizarte segurantza: enpresak kotizatzen duena langile bakoitzeko (kopuru garrantzitsu bat da edozein enpresentzat , soldataren herena gutxienez eta zenbait kasutan soldata

baino handiagoa izan daitezke eta inoiz ez herena baino gutxiagoa) agertuko dira. Langileak zuzenean eskuratzen ez duen kopuru bat da, baina noski langileen mesederako denez enpresarentzat kostu bat da (asegurua....). Langileak ikusten ez duen dirua, baina, langileengatik enpresari kostatzen zaion dirua.

- Horiez gain, batzuetan, enpresak dituen gastu (laguntza) sozialak agertu daitezke(jangelak, seme alabentzako bekak...) eta horiek ere langilearen kostuan barneratuko lirateke.

Garrantzitsua (AZTERKETAN ASKOTAN): enpresari langile bat kostatzen zaiona, langileak kobratzen duena baino gehiago da. Adibidez: enpresari gehiago kostatzen zaio diru garbian ordaintzea beltzean baino. Demagun beltzean 1800€ irabazten duen pertsina batek hilabetero , diru garbian 900€ irabazi ahal du, gizarte seguratzarengatik eta errenta aitorpen atxikipenengatik.

LANGILE KOSTUA ETA LANGILEAK KOBRATZEN DUENAREN ARTEKO DIFERENTZIA

Gutxigorabera langile batek kobratzen duenaren bikoitza da enpresari langile hori kostatzen ziona. Hori zergatik?

- Enpresak soldata gordin guztia jartzen du baina langileari ez zaio dena iristen (bi atxikipen daude: langilearen kargurako gizarte segurantza eta errenta aitorpenerako egiten den atxikipena, langileak hilero diru zati bat jartzen du eta gero maiatzean gehiago edo gutxiago kobratuko du).
- Enpresaren kargurako gizarte segurantza: langileak ez du kobratzen, baina enpresak ordaintzen du (diru kopuru handia). Hala ere, era batean edo bestean jasoko du diru hori: jubilatzean...
- Normalean langile batek enpresan 11 hilabete lan egin eta 14 kobratzen ditu (3 paga extra). Enpresak diru hori jarri beharko du beraz diferentzia sortuko da orduka kobratzen duen baten eta kontratu bat duenaren artean.
- Enpresetan denbora ez ekoizkor asko egoten dira. Garbitzen, lana prestatzen, gaixo, ikastaro batean...egongo daiteke. Beraz kontrataturiko denbora eta benetan denbora ekoizkorra zein den bereiztu beharko da.

Adibidea: Langile batek ikastaroak baditu, konponketa egitera urrutira joan behar badu...ordu ez ekoizkor asko sartzen ditu. Enpresaren goiz guztiaren kostua konponketa horri leporatu beharko dio dirurik galdu nahi ez badu. Bezeroak faktura igortzean pentsa dezake izugarrizko faktura bidali diotela. Ondorioz gauza guzti hauek barneratuz langile batek kobratzen duena eta langile honek suposatzen duen kostua bata bestearen erdia/bikoitza izango zen.

KONTUZ!!azterketako galdera ikusi duguna! Zer komeni zaigu 10€kobratzea orduko ,78€ egunean 22 egun, 1800€ baina 800€ bezala izango zen kondizio normaletan lana egin ezkero(oporrak, pagak…).

ORDAINKETA MOTAK (LANGILEEI ORDAINTZEKO ERAK ETA KOSTUENGAN ERAGINA)

Mota bakoitzak kostu desberdin bat suposatuko du.

- **Soldata pasatako denboraren arabera kobratzea:** (egoerarik normalena, 8h lan egitea egunero). Langileak enpresan pasatu duen denboraren arabera kobratzen du. Enpresaren ikuspuntutik kostu finko bat izango da (ez du jarduerarekin zerikusirik). Langilearentzat abantaila: langilearentzat berme bat suposatzen du langileak badaki zenbat kobratuko duen lan asko edo gutxi egin. Akatsa: langilea desmotibatzea suposa dadezake berdin kobratuko baitu lan asko edo gutxi eginda.
- **Soldata ekoizten den pieza bakoitzeko kobratzea** ("destajuan lan egin"): Langileak egiten duen pieza bakoitzeko kobratzen du. Enpresaren ikuspuntutik kostu aldakorra da (zenbat eta lan gehiago egin langile kostua handiagoa izango da). Abantaila: Langileak motibazioa izango du (zenbat eta gehiago ekoiztu gehiago kobratuko du). Akatsa: ez dago bermerik, langileak ez daki zenbat irabaziko duen. Ez da oso arrunta
- **Soldata mixtoa (bien arteko nahasketa):** soldataren zati bat finkoa da (oinarrizko soldata bat bermatzen zaio langileari enpresaren esanetara egoteagatik) eta horrez gain, ekoizten den pieza bakoitzeko soldata aldakor bat izango du, langilea motibatuko duena. Nahiko zabaldua dago. Kostuen ikuspuntik kostu bat finkoa da eta bestea aldakorra.
- **Errendimenduagatiko lansariak edo ekoizkortasunagatiko lansariak:** Langileei ematen zaien diru bat normalean ekoizpena handitzeagatik (denbora laburragoan bere lana ondo egiteagatik). Banakakoak edo indibidualak(langile bakoitzeko) edo kolektiboak edo taldekoak izan daitezke batez ere lana bakarka edo taldeka egiten denaren arabera. Lansari hauek ze **irizpide**ren arabera ezarriko dira?
  - **Lansaria aurrezten den kostuaren arabera:** kostu estandar bat ezartzen da eta kostu hori gutxitzeko gauza baldin badira langileak (adb:lana azkarrago eginez), aurrezten den zati hori mozkina da enpresarentzat eta zati bat langileari ematen zaio, langilea motibatzeko.
  - **Lansaria ekoizpena bolumenaren arabera:** Ekoizpen estandar bat ezartzen da (1000 pieza hilean) langileak hori baino gehiago ekoizteko gai baldin badira sortzen den mozkinetik zati bat jasoko dute (mozkin zati bat langilearentzat, eta bestea enresarentzat gainjarduera horrengatik).

- **Lansaria, langileek enpresako mozkinetan parte hartzeko eskubidea izatea**: Enpresako estatutuetan jasotzen da enpresak urte bukaeran mozkinak baldin baditu, mozkinen parte bat langileentzat dela. Bi era daude:

  - Zuzenean: enpresak zein portzentai banatu erabakitzen du.

  - Sakonagoa: langileak enpresaren jabe bihurtzea, akzioak oparituz eso oso prezio onenan langileei saltzea. Horrela, langilea enpresaren zati baten jabe bihurtzen da, bazkide bihurtuz. Horrela langileak enprearen martxan nolabaiteko inplikazio bat izatea lortu nahi da.

Azken finean helburua langileak motibatzea da, langile motibatu batek lana hobeto egingo duelako, azkarrago, errentagarritasun handiagoz, hortaz, enpresarentzat garrantzitsua da.

Dirua motibazio iturri nagusia da baina beste sistema batzuk ere egon daitezke:

- Langiro ona - Lanean ikastea -
Promozioko aukerak izatea (goraka joateko aukera ikustea)
-**Kalitate zirkuloak:** Langileak egindako asanbladak edo bilerak dira, eguneroko eginkizunetan dituzten laneko arazoetaz (egunerokoak) hitz egiteko eta irtenbideak planteatzeko. Goiko zuzendaritzatik ez dute arazo horien berri izaten. - Abantaila: langileak ezagutza sakonago baitute enpresa barruan (langileek beraiek inork baina hobeto ezagutzen dituzte arazoak, gertutasuna)eta beraiek dira irtenbidea proposatzen dutenak, hortaz, har daitezkeen erabakiak zizenak izango dira.

ORDU BEREZIAK

Jarduera handia denean batzuetan langileak ordu bereziak egin behar ditu eta hauek ia ordu normal baten bikoitza kostatzen dira (larunbatak, jai egunak...), beraz, ordu berezietan produktua ekoiztea garestiago irtengo da enpresarentzat. Nori leporatzen dizkiogu ordu horien gainkostua? Bi irrizpide:

- **Bezeroa da presa deuena**: Gainkostu hori bezeroari leporatzea da(ordaintzeko prest?)
- **Enpresak ekoizpen ahalmena txikia duelako:** enpresak dituen langileekin ezin badu eskaria bte, ordu bereziak sartzen dira: kasu hauetan ordu berezien batezbesteko bat egin eta ordu berezien gainkostua ordu normalengan gaineratzen da. 10h normal, 5 berezi (20-30€)=23,3€/h

Ikasketa funtzioa

IKASKETA FUNTZIOA:

Lan bat egiterakoan esperientzia baldin badugu langile kostua piezako gutxitu egiten da, gehiago, azkarrago eta hobe egiten duelako. Jarduera zehatz baten denbora eta gero jarduera bikoitza egitearen denbora konparatzen dira.

Zeren kostua kalkulatuko dugu?

Lan unitatea langile kostua kalkulatzerakoan denbora (orduak) izango da. Ordu guztiak ez dira berdinak izango , ordu mota ezberdinak izango ditugu:

- Kontrataturiko orduak/ordu ekoizkorrak: langileak kontratuan duen ordu bakoitzeko kostua (langile kostua/lan orduak) benetan zerbait ekoizten ari garen ordu horien kostua biak interesatuko zaizkigu. Guk bezeroei ordu ekoizkorrak fakturatuko dizkiogu
- Pertsona ordua/makina ordua: Pertsona ordua deritzo, lan batean dauden kostu desberdinen artean langile kostua denean garrantzitsuena (badaude amortizazio eta beste gastu batzuk baina lan horretan esku lana da nagusi). Adibidez igeltsero batek erreminta sumeak erabiltzen ditu lanean eta horien amortizazioak ez du bere soldatarekin alderatuta garrantzi handirik, beraz ordu horiei pertsona orduak deituko diegu. Makina ordua kontrakoa da, makinaren amortizazioa edo bere erabilpenak suposatzen duen kostua langilearen kostua baina askoz handiagoa izango da. Adibidez eskabadora batekin dabilen palista baten langile kostua, gutxienekoa da eskabadora erabiltzeak duen kostuarekin alderatuta (errekinen kontsumoa), amortizazioa...

ZEHARKAKO KOSTUAK

ZER DIRA? Zuzenean produktu bati egozterik ez dauden enpresako kostuak dira. Arazoak sortzen dizkigute egozpena egiteko garaian, egozpena banaketa irizpideen bitartez egin behar baita eta banaketa horiek artifizialak eta inongo zentzurik gabekoak dira sarritan emaitzak zerikusi gehiago izanik irizpidearekin benetan gertatzen denarekin baino. Beraz kostu garrantzitsu bat direnez arretaz egin beharko dugu banaketa kostuak desitxuratu ez daitezen.

Amortizazio gehiena, alokairuak,mantenua,zergak,zeharkako eskulan guztia(ekoizpenean zuzenean parte hartzen ez duten langile horiek, atezainaren, soldata), zergak, mantenu kostua, hornizioak (ura, argindarra, gasoila,interneta...), ordezko piezak edo hainbat gai (lubrikatzaileak), administrazio kostua (normalean finkoak eta zeharkakoak dira.

Kontuan izan behar dugu enpresak produktu mota bakarra egiten badu zeharkako kostu guztiak zuzen bihurtzen ditugu.

ZEHARKAKO KOSTU BATZUK

AMORTIZAZIOAK: Enpresak gordetzen duen baina ordaintzen ez den diru bat da ibilgetu baten bizitza utilaren amaieran antzekoa den berri bat erosi ahal izateko. Ibilgetuek jasaten duten balio galeraren

islada da.Printzipioz enpresa guztietan daude. Kontabilitate analitikoan gure irizpide propioa erabil dezakegu (finantzarioan ez). Enpresa guztietan emango den kostu garrantzitsu bat da, ibilgetuak enpresa gehienetan daude eta amortizatu beharko dira. Enpresetan ibilgetuak geroz eta gehiago dira eta eskulana gutxiago beraz amortizazioen garrantzia handitzen ari da.

Amortizazioa gai oso subjetiboa da. Amortizazioa **subjetiboa** dela esateko zenbait arrazoi:

- Amortizazioa egiteko modu ezberdinak daude eta enpresak erabaki beharko du zein bide aukeratu:
  - **Amortizazio lineala** (KH-HB/Bu) :ekitaldiro kopuru bera amortizatzea. Ikusi dezakegunez amortizazio lineala kalkulatzeko erabilitako kontzeptuak subjetiboak dira:
    - Bizitza-utila: erabat subjetiboa eta estimatua da, gehienetan inork ez daki zenbat iraungo duen ibilgetu batek.
    - Hondar-balioa: ibilgetuaren bu amaieran horregatik zenbat emango diguten ezin dugu jakin, txikia izango dela kopurua bai baina ez kopurua
    - Benetako datu bakarra kostu historikoa izango litzateke baina ez digu askotarako balio. Guretzat berjarpen balioa zein izango litzatekeen askoz gehiago interesatuko litzaiguke (hemendik 10 urtetara makina antzeko bat erostea zenbat kostako litzakeen). Beraz esan dezakegu 3ak direla subjetiboak.
  - **Amortizazio progresiboa:** Erabilpen balioaren arabera amotizatzen dugunean ibiltegua erabiliko da. Hasieran ibilgetuak erabilpen guztia du eta ia ez da amortizatzen baina zahartzen doan ahala geroz eta gehiago amortizatzea da. Adibidez (zenbaki indizeen amortizazioa): 1.%10, 2 %20, 3 %30, 4 %40=%100.
  - **Amortizazio regresiboa** : ibilgetua zahartu ahala geroz eta gutxiago amortizatzen dugu. Merkatuko balioaren arabera amortizatzen direnean erabiltzen da, balio galeraren arabera. Adibidez(zenbaki indizeen bidezko amortizazioa) 1 %40,2%30, 3%20,4.%10
  - **Amortizazio finantzario eta ez finantzarioak:** Normalean amortizazioarekin gordetako dirua inbertitu egiten da. Amortizazio ez finantzario deitzen zaio erakunde finantzario batean inbertitu badugu diru hori eta emandako interesak, korrituak, sarrera finantzarioa moduan hartzen badira (amortizaziotik etorriko ez balira bezala). Amortizazio finantzario deitzen zaio amortizazioaren dirua banketxe batean sartu eta lortutako sarrera finantzarioa amortizazioaren barne sartzen bada, amortizazio metatua handituz.
  - **Enpresak mozkinak dituenean asko amortizatu** eta **gauzak gaizki doazenean gutxi amortizatu:** Gauzak ondo doazenean, amortizazio gastu bat denez zenbat eta gehiago amortizatu gastua handitu eta mozkina txikituko da, horrela aziendari zerga gutxiago ordaintzeko. Gauzak

(*) kanpo kostu bat edo kalkulaturiko kostu bat.
Ez da komeni matxura bat izatea, matxura hori konpontzeko komeni da mantenu kostua aurreikustea eta kostu hori egingo diren produktu guztien artean banatzea

gaixki doazenean galerak daude edo mozkin eskasak badaude gutxi amortizatzen da mozkina handitzeko (burtsan kotizatzen duten enpresetan asko ematen da).

Balio-galera motak:

- **Balio galera fisikoa**: Denbora pasatze hutsagatik ondasun batek jasandako balio-galera da, ez du jarduerarekin inolako zer ikusirik, kostuen ikuspuntutik kostu finko bat suposatzen du. Adibidez: eraikuntza baten amortizazioa, garajean utzitako kotxe batena
- **Balio galera funtzionala**(erabilpenagatik sortzen den balio galera): Zenbat eta gehiago erabili ibilgetu bat orduan eta gehiago hondatuko da. Kostu aldakorra da. Honez gain erabiltzeko eragatik balio galera: Adibidez kamioi batek zenbat eta kilometro gehiago egin gehiago egingo da baina según eta kilometro horiek nola egiten ditugun, pisuarekin….are eta gehiago hondatzen da.
- **Balio galera ekonomikoa**: zaharkitzeagatik sortzen den balio galera (obsoletencia). Kostu finko bat suposatzen du. Teknologia berri bat sortu delako gure ibiltegua zaharkitua geratzen da. Tornu berriak zaharraren bikoitza ekoiztuko du

(*) **MANTENUA**: ibilgetua beti ekoizteko prest, egoera onean egon dadin egin beharreko lanak dira. Mantenuaren helburua ekoizpen etendurak ekiditzen laguntzea da, azpiiharduerako kostuak gutxitzeko. Mantenu zerbitzua kontratatunkoa(kanpo zerbitzua) edo enpresa berak egina(langile kostua) izan daiteke. Urteko plangintza bat egiten da egin beharrekoak uniformeki banatuz ekitaldian zehar, horrela badakigu epe bakoitzean eta ekitaldiko kostua zenbatekoa izango den. Matxura bat gertatzen bada matxuraren kostua urte guztian zehar banatzea gomendatzen da, galera edo kostua ekitaldi horri zuzenean egotzi ordez, ekitaldi horretako emaitza kaskarra ekiditeko asmoz.

AZPI-IHARDUERA: Enpresa baten jarduera %100 ez bada aprobetxatzen sortzen diren kostuak dira. Gure helburua hori ekiditea da eta horretarako gauzak ondo doazenean inbertitzea eta krisi garaian berriz desinbertitzea gomendatzen da (saldu erabiltzen ez diren ibilgetuak, hala beharbada erosketa bat egin aurretik malgutasun handiagoa duten irtenbideak planteatu, leasing, renting…). Azpi iharduerako kostuak ezin dira inungo produkturi egotzi.

ZERGAK:

Enpresa bateko jarduera gehienak zergatzen dira, baina ezin zaio produktuari zuzenean egotzi.

Balio galera

- Higiezinezko ondasunei buruzko zerga (impuesto sobre bienes inmuebles, hiritar kontribuzioa): eraikuntza bat gure propietatekoa izateagatik ordaindu behar den zerga bat da. Zeharkako kostu finko bat da.
- Iharduera ekonomikoagatiko zerga(lizentzia fiskala): jarduera zehatz batetara dedikatzeagatik ordaindu behar den zerga da (ez du jarduera maila zergatzen). Kostu finkoa zeharkakoa da.
- Mozkinen gaineko zerga: Finantzarioan ez da kostu bat, baina kontabilitate analitikoan kostu garrantzitsu bat da mozkinaren herena eramango baitu aziendak.
- BEZa (Balio erantsiagatiko zerga): Kasu gehienetan BEZa ez da kostu bat izango enpresarentzat baina bai azken kontsumitzailearentzat. 3 hilabetero aziendarekin kontuan egiten ditu enpresak , geta BEZ kitapena egingo du, beraz enpresak errekaudatze lana bakarrik egiten du. Hala ere, erosten dugun kontzeptua ezinbestekoa ez denean aziendaren iritziz, BEZa ez da deduzigarria izango eta ondorioz enpresarentzat BEZa kostu bat izango da enpresarentzat. Horregatik adibidez enpresa gehienek luxuzko kotxeak leasing bidez eskuratzen dituzte eta ez erosi, BEZa heren bat ordaindu beharko luketelako.
- Ondare transmisioei buruzko zerga (ondare eskualdatzeari buruzko zerga): ondasun bat izenez aldatzen denean ordaindu beharreko zerga, ondasun bakoitzaren jabearen izena aldatzeko garaian ordaintzen dena (transferentzia). Finkoa da kasu gehinetan, salbuespen bezala gure enpresa profesionalki salerosketara dedikatzen denean, berriro saltzen duenean deduzitzeko eskubidea izango du.

PERTSONA ORDUAK/MAKINA ORDUAK: Hemen normalean makina orduak erabiliko ditugu baina langilearen soldata denean nagusiena pertsona orduak erabiliko ditugu.

ZEHARKAKO KOSTUEN EGOZPENA

Kostuak egozteko garaian zeharkako kostuak badira normalean lehendabizi lekuraketa egingo da, zer sailetan ematen diren kostu hauek ikusiko da eta gero banaketa irizpide baten arabera egingo da kostuen banaketa. Garrantzitsua da banaketa irizpidea zentzuzkoa izatea.

LEKURAKETA

SAILAK BIETAKO BAT : SAILAK edo LAGAPEN PREZIOAK

Deszentralizazioa: Zentro bakoitzean arduradun bat egotea ezinbestekoa da zentro deszentralizatua izateko. Arduraduna sail horretako erabakiak hartzeko gaitasuna(boterea) duen pertsona izango da, horrela sail bakoitzak era independentean erabakiak hartzeko ahalmena izango du. Sail deszentralizatuei ardura alorrak deitzen die autore askok , beraz ardura horrek suposatzen duen alorra izango litzake sail

deszentralizatu bakoitza. **Deszentralizazio maila desberdinak arduradunen erantzunkizunaren arabera:**

- **Kostu zentro edo sail bat:** Arduradunaren ardura bakarra kostuak ahalik eta txikienak izatea da gutxieneko kalitate bat bermatuz. Kostu estandar batzuk ezarriko dira eta benetan ditugun kostuekin konparatuko dira.
- **Sarrera zentro edo sailak:** Arduradunaren erantzunkizun bakarra sarrerak ahalik eta handienak izatea da (gehien saltzea). Sail komertzialetan(merkaturatze) bakarrik ematen da. Hala ere arriskutsua izan daiteke edonori saltzea. Kontuan izan sail bakoitzaren helburuak enpresaren helburuaren azpitik egon behar dutela
- **Mozkin zentro edo sailak:** Arduradunaren erantzunkizuna mozkinak handitzea izango da horretarako sarrerak handituz eta kostuak gutxituz, hau da sarrera-kostu diferentzia handitzeko ardura izango luke. Sail komertzialak bakarrik funtziona dezake mozkin zentru gisa. Beste sail batzuk mozkin zentru gisa funtzionatu ahal izateko batzuetan lagapen prezioak asmatzen dira.
- **Inbertsio zentro edo sailak:** Mozkin zentro bat baina sarrerak handitzeaz eta kostuak gutxitzeaz gain arduradunak bertan emango diren inbertsioen erantzunkizuna izango du, berak erabakiko du sail horretan egingo diren inbertsioak zein izango diren (ez dio goi mailako zuzendaritzari baimena eskatu beharrik), beraz deszentralizazio mailarik handiena dela esan dezakegu.

LAGAPEN PREZIOAK

Sail komertziala ez diren beste sailek mozkin sail gisa funtziona dezaten asmatzen diren sarrerak dira. Enpresaren barruan itxurazko salerosketa baten prezioak dira, (Hk Eri salduko balio bezala…) Lagapen prezioen helburua sailen arteko lehiakortasuna eta sailen eraginkortasuna handitzea da, sail bakoitza enpresa independentea izango balitz bezala. Gogoratu enpresako helburu nagusiak sail bakoitzaren helburu partikularren gainetik egon behar duela.

ADIBIDEA (lagapen prezioa): Txatarra---1€/kg---------Hornikuntza------2€/kg------Fundizioa---3€/kg----Mozketa ------4€/kg-----Mekanizatua-----5€/kg----Muntaia----6€/kg-----komertziala----7€/kg---Bezeroa

Sail bakoitzaren outputa hurrengo sailaren inputa da. Benetako prezioa komertzialak 7€/kg tan saltzen diola bezeroari izango litzake, beste prezio guztiak itxurazkoak izango lirateke, berez ez dira salerosketak, itxurazkoak baizik.

Lagapen prezioak ezartzeko sistemak

1. Kostu estandarren arabera ezartzea: Kostu estandarra aurreikusitako kostu bat da. Dena kostu estandarrean pasaz ordea, sail bakoitzak ez du inongo mozkinik izango eta sail bakoitzaren errendimentu eta independentzia bultzatzea zen gure helburua. Mozkin guztia komertzialean emango litzateke horrela eginez gero.
2. Kostu estandar gehi mozkin portzentaje bat: horrela sail bakoitzak bere mozkin portzentaia izango du
3. Merkatuko prezioen arabera ezartzea: Akatsa: kasu gehinetan merkatuan horrelako erreferentzi bat aurkitzea zaila da (bideango produktuak bilatzea ez da erraza). Baina lortuko bagenu merkatuko erreferentzi bat, kudeaketa tresna garrantzitsu bat bihurtzen da, lagapen prezioak ezartzeko era egokiena izango litzateke. Adibidez bideango produktu bat merkatuan 2,5€/kg aurki badezakegu eta guk garestiago ekoizten badugu gure fundizioa ez da oso errentagarria, beraz ixtea planteatu beharko genuke sail hori eta kanpoan erosi. Alderantzizko merkatu prezioa gure lagapen prezioa baino garestiago bada, gure sailak eraginkorrak dira, beraz gure enpresak behar duena ekoizteaz gain kanpoan ere saltzea plantea dezake, negozio aukera berri bat agertzen zaigu, gure azpiharduerako kostuak gutxitu eta enpresaren emaitza handituz.
4. Sailen arteko negozioazioak: Edozein salerosketan bezala bi aldeak prezioa negoziatu egiten dute. Akats bat du sistema honek: sail guztien indarra ez da berdina,hórrela gehienetan sail indartsuak ahula menderatzen du, beraz negoziaturiko prezioak direnean askotan enpresako zuzendaritza orokorrak parte hartu beharko du abusuak egon ez daitezen, eta horrela enpresako helburuak sail bakoitzaren helburu partikularren gainetik egon daitezen.

Zer kontabilitate sistema erabili deszentralizazioa dagoen garaian eta kudeaketa kontabilitatean/management accountin/kudeaketa kontrolean. Pausuak

1. Sarrera eta kostuen aurreikuspena egitea, plangintza, aurrekontua
2. Ohizko jarduera egin ondoren datu historikoak lortzen dira (benetako sarrera eta kostuak)
3. Aurreko biak alderatzea, hau da, aurreikuspena eta benetan gertatu dena konparatzea. Soilik diferentzi nabarmenak aztertuko dira, diferentzia handiak eta diferentzien arrazoiak ezagutu ondoren (puntu ahulak eta sendoak) neurriak hartuko dira.

DESZENTRALIZAZIOARI BURUZ MUNDUAN DAUDEN ZENBAIT KORRONTE

Frantsesak: Kostu ikerketan nahiko herrialde garatua dira.

- Sail kontzeptuaren ordez sail homogéneo(57ko plana) eta azterketa sail(82ko plan) kontzeptuak erabiltzen dituzte eta sail laguntzaileen ordez(mantenua, garbiketa) itxurazo sailak

- Saila helburu bat lortzeko ditugun baliabide multzoa (bai baliabide ekonomiko, teknologiko, giza baliabide...) da. Beraz sail homogeneoa pintura saila bada sail hori pintatzeko balio duen edozein tresnerik osatuko du (pintoreak, brotxak.....).
- Beraien iritziz zeharkako kostuak soilik lekuratu behar dira, kostu zuzenek ez dutelako arazorik produktuei leporatzeko. Sistema errazagoa da baina lekuraketa desitxuratua geratzen da (zuzenen datuak falta dira).

Amerikarrak (EEBB): Irakasgai hau EEBBtan sortu zen 1969an.

- Sailei departamentuak deitzen diote eta sail laguntzaileei zerbitzu departamentuak
- Kostu guztiak lekuratzea komeni dela diote . Horrela lekuraketa osoa izango da (sail bakoitzaren kostua osoa da).
- Sailen arteko harremanen bereizketa bat egiten dute eta hiru harreman mota bereizten dituzte:
- menpekotasunezko harremana (sail baten outputa hurrengo sailaren inputa izango da).
- Harreman independenteak: independenteki funtzionatzen dute nahiz eta sail guztiak enpresa berarenak izan
- Harreman mistoa: sail batzuk menpekotasunezko harreman bat dute(A-B-C-D) eta beste batzuk ere bai beren artean(E-F) baina bi bultzoak independenteki funtzionatzen dute.

Espainiarrak:

- Lau sail nagusi bereizten dira: H+E (sail eraginkorrak) eta K+A (ez eraginkorrak). Egitura funtzionala egitura espainiar bat da (ekoizpen kostuan sail eraginkorren kostuak barneratu eta sail ez eraginkorren kostua marjenetatik deskontatzen da). Beraz sail eraginkorrena eta egitura funtzionalena eskola berdinetik egindako ekarpenak izango lirateke.
- Administrazio sailaren bitxikeria: administrazio kostua sail nagusia da garrantziarengatik, baina bestalde eginkizun ikuspuntutik administrazioaren lana enpresaren kudeaketa egitea da, nolabait beste enpresako sailei laguntzea, beraz egiten duen funtzioarengatik laguntzailea izan daiteke, horregatik zenbait autorek sail konplementario deitzen diote.

KOSTUEN BANAKETA SAILEN ARTEAN

Sailen artean kostuak banatzeko LAN UNITATEAK izeneko neurri unitateak erabiltzen dira. Beren helburu nagusia banaketa hori erraztea eta bestalde sail bakoitzaren eraginkortasuna neurtzea izango da. Banaketa zuzen bat egin ahal izateko aukeratzen dugun lan unitatea egokia izan beharko da. Lan unitate motak:

- Sinpleak: Kontzeptu bakarra barneratzen duen lan-unitatea. Orduak =denbora. Kiloak ,litroak, pausuak…
- Konplexuak: kontzeptu bat baina gehiago elkar uztartzen dituzten lan-unitateak. Tn/h, Tn/km…

Sail nagusi eta sail laguntzaileen artean kostuak banatzea (bazpare)

Sailak elkarren artean lagundu egiten dira nahiz eta bakoitzak bere lana egin. Sail horrek laguntzak jaso baditu edo eskeini baditu baita ere islatu beharko dira.
Hasteko banaketa bat egingo dugu bereiztu gabe zein den sail nagusia eta zein laguntzailea. Eta gero azpibanaketa egingo dugu: sail laguntzaileen kostua nagusietara pasatzea. Azpibanaketa egiteko garaian sail gehiagori laguntzen dien sailetik abituko gara eta hurrengoa izango da sail gutxiagoei laguntzen dien saila (agorpen hastapena).

Ba.

EGOZPENA

Egozpena produktu edo zerbitzu bakoitzaren kostua kalkulatu edo isladatzea da. Kostu eramaile horiei dagokien kostua leporatzea.

KOSTU ERAMAILEAK (produktu eta zerbitzuez gain beste batzuk):

- **Bideango produktuak:**. Bideango produktu baten balioa handia izan daiteke (erdi eginik dagoen eraikin bat adibidez), beraz bere kostua kalkula daiteke batzuetan.
- **Eskaerak:** Bezero batek produktu ezberdinetatik kantitate ezberdinak eskatzen badizkigu eta beste produktu berezi bat eskatzen badigu gerta daiteke azken honekin guk dirua galtzea baina hala ere mereziko digu eskaera guztiaren bitartez dirua irabazten bada, eragiketa komenigarria izango da, beraz eskaera guztia izango da kostu eramailea.
- **Ekoizpen aginduak:** Okindegi batean labekada bakoitzean 500 ogi kabitzen badira guretzat 500 ogi edo 1 egiteak kostu berdina eragingo digu, beraz produktu bakoitzaren kostuak ez du garrantzia baizik eta labekada bakoitzaren kostuak, hau da, ekoizpen aginduak suposatzen du kosturik nagusiena.
- **Ekoizpen prozedura**: guk ekoizpen prozedura bat jarraitzen dugu (txatarra urtu, mekanizatu....) beraz prozedura baten kostua interesgarria izango litzake, beste prozedura batekin konparatzeko....
- **Enpresak bere ibilgetuarentzat egindako lanak** : enpresak bere buruarentzat lana egiten duenean: adibidez eraikuntza enpresa bat bere bulego eraikuntza eraikitzen ari bada. Egindako produkuta salduko ez denez tratamendu berezi bat emango zaio.
- **Ihardueran oinarritutako kostuak** (Activity Based Cost, ABC kostuak): Prozedura normalean (lekuraketa, egozpena..) ihardueran oinarritutako lekuraketa gehituko litzateke, hau da enpresak kalkulatuko du iharduera bakoitzaren kostua zein den . Adibidez zein den pintatzearen kostua, biltegiratzearen kostua...hau egin ondoren bezeroei galdetuko zaie beraien ikuspuntutik zer balio erantsi ematen dioten jarduera hori egiteak. Bezeroek balio erantsi exkaxa ematen badiote iharduera bati (ez du baloratzen) iharduera hori ez da egingo edo ezinbestez egin behar badira kostuak murrizten saiatuko gara iharduera horretan. Aldiz, bezeroek ongi baloratzen dituzten iharduerak mantendu egin behar dira eta ez du merezi iharduera horietan kostuak jeisteak .

Adibidez: Kotxeen biltegiratze iharduera bezeroak ez du baloratzen nahiago duelako biltegiratu gabe egotea kotxea , beraz ahal izanez gero ez dugu biltegiratuko edo ahalik eta gutxiena biltegiratuko dugu edo era merkeenean, bezeroari iharduera horregatik ezin baitiogu diru gehigarri bat eskatu. Aldiz kotxea pintatzea ez da asko kostatzen enpresarentzat eta

bezeroarentzat garrantzi handia izango du, beraz pintura iharduera ongi baloratuta dagoen iharduera bat da beraz ez du merezi pinturan dirua aurrezten saiatzea.

KUDEAKETA KONTABILITATEA

Kudeaketa kontabilitatea edo kontrola (epe laburra) eta zuzendaritza kontabilitatea eta management accounting(epe luzea).

Kudeaketa kontabilitateak iraganaz gain etorkizuna islatzen du, zein kostu gerta daitekeen ikusten saiatzen da. Hau da kudeaketa kontabilitatean ardatza etorkizuna da. Geroa islatzeak datuak asmatzea dakar beraz geroari buruzko hausnarketek subjetibotasun handia izango dute.

Gerta daitekeena aurreikusteak denboran ZEHAR aurreratzea ahalbidetzen du, horrela egoera berriei aurre egiteko neurriak hartzea posible izango da (abantaila). Helburua enpresaren kudeaketa hobetzea izango da, egiten den hura ahal den neurrian hobetzea.

AURREKONTUAK

Aurrekontuetan hausnarketak orokorragoak dira eta batez ere enpresako sail ez eraginkorretan ematen dira(K+A, eragiketak errepikakorrak ez direnean).Kontabilitate finantzarioko arloetan ere erabiliko ditugu (diruzaintzaren-, egoera balantze-, g-i-aurrekontua...). Beraz konta finantzarioa etorkizunari begira egiten dugunean aurrekontuak egingo ditugu.

Aurrekontuak helburuak lortzeko ezinbestekoak diren edozein baliabideren (ekonomiko, teknologiko...) kontsumoa dira, dirutan adierazita. Kontsumoa kopuru fisikoetan adierazten badugu (kg, ordu,...) programa deituko zaio eta dirutan adierazten bada programa hori aurrekontua da. Aurrekontuen iraupena normalean urte bete baina laburragoa izaten da nahiz eta legerik ez egon. Epe luzeagokoak badira plangintza estrategikoa deituko zaie. Egokiena aurrekontuaren eta gure ekitaldiaren iraupena berbera izatea izango litzake, baina beti ez da posible.

Kudeaketa kontabilitatearen sistema, pausuka:

1- **Aurreikuspen bat egin** (zenbat espero dugu saltzea, ekoiztea, zer preziotan) =Aurrekontua egin
2- **Benetako datuak jaso**: Gure ohizko jarduera egingo dugu aurrekontua betetzen saiatuz. Beti ez da posible izango aurrekontua betetzea %100.

3- **Desbideraketa nabarmenak aztertu**: Gure jarduera eta aurreikuspena %100 betetzea konparatuko eta sortzen diren diferentzia nabarmenak aztertuko ditugu. Erreferentzia bezala %5etik gora jotzen dira nabarmen.

4- **Diferentzia kontzeptu absolututan**, dirutan zein den ikusi, askotan %handia izan arren diru gutxi izan baitaiteke eta alderantziz.

5- Arduradunak (ezinbestekoa da) diferentzi nabarmen guztiak aztertu eta **zergatiak ikusten** saiatuko da(aldekoak eta kontrakoak) gure puntu ahulak eta indartsuak ezagutzeko baliagarria izango zaiguna.

6- Arduradunak **neurriak proposatuko** ditu hura ekiditzeko eta gure kudeaketa hobetzeko.

Aurrekontu bat behar bezala egiteko baldintza edo hastapenak:

1- **Helburuak:** Aurrekontuaren helburua eta enpresaren helburu nagusia bat etorri behar dira (norabide berberan)

2- **Konparagarritasuna:** Aurrekontu bat errealitatearekin, iraganeko edo etorkizuneko edo beste norbaitek egindako aurrekontuekin batzuekin alderatzeko egiten da. Beraz, aurrekontu bat alderatu ahal izateko homogeneitasuna bete beharko da bai edukien aldetik baita kontzeptuen aldetik ere konparagarritasuna bete ahal izateko.

a. Kontzeptuetan: kontzeptu berberak soilik izango dira konparagarri (erosketa erosketarekin…lehengaien erosketa aurrekontua ezin dut konparatu kontsumoaren aurrekontuarekin)

b. Edukietan: kontzeptuaren barruan barneratzen diren edukinak ere berdinak izan beharko dira (kontsumoa fiforen bitartez kalkulatu bada aurrekontua egiteko garaian ere fiforen bitartez)

3- **Erantzunkizuna:** Arduradun bat egon behar da ezinbestez edozein aurrekonturen atzekaldean erantzuteko. Arduradunik gabeko aurrekontua paper hutsa izango da eta ez du ezertarako balio izango.

4- **Egokitzapena:** Aurrekontua guk asmaturiko kontzeptu bat da, ez da erreala, beraz egoera aldatu bada aurrekontua ere aldatu egin beharko da. Gainera guretzat denez, gauzak ondo egitea interesatzen zaigu. Datorren hilean espero baina gutxiago salduko dugula baldin badakigu aurrekontua aldatuko dugu.

5- **Eraginkortasuna:** Aurrekontuak irekiak izan behar dute guk beraiekin lan egin ahal izateko. hau da aurrekontu zehatzak batuz orokorretara iritsi gaitezke eta aurrekontu orokorretatik txikiago batzuetara pasa gaitezke.

Aurrekontu bat egin ahal izateko informazio iturriak

Informazio iturri nagusia kontabilitatea da, gure enpresan zer gertatu den esaten baitigu (datu historikoak). Hala ere guk etorkizunari begira proiekzioak egin bearko ditugunez teknika estatistikoak erabili beharko ditugu iraganeko datu horiek etorkizunera proiektatzeko (estatistika bera,programaketa lineala, ikerketa eragiketa…)

Aurrekontu motak

- **Enpresaren helburuaren arabera**

Enpresaren helburua dirua irabaztea denean: Lehenengo salmenten aurrekontua egingo da, nolabait beste aurrekontu guztiak baldintzatuko dituztelako salmentek (zenbait saltzea espero dugun baldin badakigu jakingo dugu zeinbat ekoiztu…). Ondoren ekoizpen aurrekontua egingo da eta horren arabera beste guztiak etorriko dira, lehengaien kontsumo aurrekontua, lehengaien erosketa aurrekontua, esku lanaren aurrekontua, inbertsioak….

Enpresaren helburua helburu sozial bat denean: zerbitzu bat eskaintzea da helburua. normalean sektore publikoan (unibertsitatea). Lehendabizi kostuak aurreikusiko dira eta salmentak edo diru iturriak ondoren.

- **Edukinen arabera:**

Gehiagotze aurrekontua (historikoki horrelakoak): Aurreko ekitaldian onartu ziren kontzeptuak besterik gabe ekitaldi honetan onartzea suposatzen du. Arazo bat du: ekitaldiz ekitaldi aurreko beharrak mantentzeaz gain behar berriak sortzen dira, beraz aurrekontua puzten edo handitzen joango da (hortik izena). • Lenco urteko aurrekontua onartu eta portzentaia hori
• Abantaila, erreza egiteko

• Desabantaila: aurreko urteko akatsak errepikatzea

Zero oinarrizko aurrekontua (PBC) (aurrekontu razionala): 70. Hamarkadan EEBB etako sanidade arazoen ondorioz sortu zen. Aurreko ekitaldiko gastuak aurreko ekitaldian onartu zirelako ez dira zertan ekitaldi honetan onartu behar, berriro aztertu beharko ditugu , zerotik abiatzen gara.). Razionalak izaten saiatuko gara eta gastuak berriz aztertuz (zerotik abiatuz) beharrezkoak diren gastuak bakarrik onartuko dira. • Aurrekontuan agertzen den moneta bakoitza justifikatzea
• Abantaila: Aurreko urteko akatsak ez errepikatzea

- **Behin behineko eta behin betiko aurrekontuak:**

Aurrekontuka zerbait malgua izan behar duenez egoera berrietara egokitzen joango da, beraz behin betiko aurrekontua oso gutxitan egingo dugu kolpean, normalean behin behineko aurrekontuak hobetzen joango gara behin betiko aurrekontura iritsi arte.

KONTA ANALITIKO/FINANTZARIOKO AURREKONTUAK

Konta analitikoaren aurrekontuak (dirua irabazteko helburua duen enpresa batek jarraitzen duen ordena jarraituz:

("Domino efektua")

- **Salmenten aurrekontua:** aurrekontu garrantzitsua da abiapuntua eta oinarria delako. Subjetiboa (asmatua) da,inork ez dakielako zehazki datorren ekitaldian zenbat salduko den. Hala ere ahalik eta objetiboenak izaten saiatuko gara.
  - Atalka hastea komeni da: zenbat espero den produktu bakoitzetik, bezeroei, zona bakoitzean…
  - Adibidez publizitateak salmentan zer eragin izango lukeen ikusiko genuke(ahalegin komertzial bat egiteak)
  - Eskaeraren elastizitatea barneratuko da: gure prezioen mugimenduak salmentetan zer eragin duen ikusi beharko dugu. Adibidez prezioa asko jeisteagatik apur bat gehiago bakarrik salduko dugun edo prezioa gutxi jeisteagatik askoz gehiago salduko den.
  - Jarduera aldaketak kostuetan zer eragin duen ikusi beharko da (KF unitateko merkeagoak diren…)
- **Ekoizpen aurrekontua**: Zenbat saltzea espero dugunaren arabera erabakiko dugu zenbat ekoiztu. Askotan ekoizpen programa gehiago erabiltzen da, batez ere oinarri bezala (zer kopuru lehengai, eskulan… behar diren), garrantzitsuagoa izango baita horrek zer kostu duen baino. Ekoizpen programa egiteko salmenta aurrekontua eta izakinen aldaketa (produktu bukatuen biltegia handitu edo txikitu nahi dugun) jakin beharko da.
- **Lehengaien erosketaren aurrekontua**: Ekoizpen programaren arabera jakingo dugu zein den lehengaien erosketa programa, zenbat lehengai erosi beharko den (izakinen aldaketa kontuan izanik. Lehengaien erosketaren programa kilo bakoitzaren prezio estandarrarekin biderkatzen badugu aurrekontua ateratzen zaigu.
- **Eskulanaren aurrekontua**: Ekoizpen programaren ondorioz jakingo dugu ekoiztu nahi duguna ekoizteko zenbat eskulan ordu beharko diren eta programa eskulan ordu bakoitzaren prezioarekin bidertuz eskulan aurrekontua aterako dugu. Eskulana ez da biltegiratzen beraz zuzenean badakigu zenbat h lan egin beharko ditugun. Eskulanaren aurrekontua plantila gure beharren arabera egokitzeko egiten da edo baita langileak ordu bereziak lan egin edo lansariak eskaintzeko….
- **Inbertsioen aurrekontua**: Ekoizpen aurrekontuaren arabera zer inbertsio beharrezkoak izango diren, zer ibilgetu erosi behar dugun, ikusiko dugu. Finantzaketa (diru iturria) kontuan hartu beharko da, beraz nolabait aurrekontu finantzarioan bere eragina izango du horrek. Azpiiharduerako kostuak ekiditen saiatuko gara,beraz saiatu beharko gara gure beharren araberakoa izatea ibilgetua, eta horretarako askotan erosketa baina malguagoak diren beste zenbait aukera planteatu beharko genituzke (renting, leasing…)

Konta finantzarioko aurrekontuak: (nahiz eta hemengoak izan etorkizunari begira landuko ditugu)

- **Diruzaintza aurrekontua**: Diruzaintzan diru kopuru aproposa izateko egingo da.
  - Diru gutxiegi izatea: ordainketa bat egiteko garaian dirurik ez izatea ekiditeko gomendioa aurrekontu bat egitea da, denboran aurreratzeko (finantza arazoak izango ditugun jakiteko). Aurrez jakinik enpresa ondo badoa arazoa erraz konponduko du hornitzaileekin hitz eginez... bere garaian ordaintzen ez badu irudi txarra har dezakeelako.
  - Diru gehiegi izatea: alperrikako dirua izan daiteke, ez baitu inongo errentagarritasunik ematen. Hortarako errentagarritasun handiagoa emango digun leku batean izatea gomendatzen da (burtsan, banketxean...)
  - Nola egin diruzaintzako aurrekontua: hasierako saldoa(benetazkoa izango da) + espero digugun kobrantzak - espero ditugun ordainketak KONTUZ!!DIruzaintzan ez da sarrera eta kostuez hitz egiten baizik eta ordainketa eta kobrantzak, konta finantzarioan gaudelako.
  - Errealitatean egunero egiten da diruzaintzaren aurrekontua, egun guztietarako planifikatzeko kontzeptua da.
- **Galdu irabazien egoeraren aurrekontua**: zenbat diru galdu edo irabaztea espero den (emaitza) estimatuko da. Sarrerak aurreikusi ditugu, gastuak ere bai beraz galdu irabazien aurrekontua egiteko ez dugu arazorik izango.
- **Aurreikusitako egoera balantzea**: Ibilgetuaren egoera berria zein izango den (inbertsioen aurrekontua), bezeroak zenbat izango diren, bitegiarekin zer egingo den (lehengai eta izakinen balio berriak ezagutzen ditugu), ezagutzen denez balantzeko kontu guztiaren mugimenduak (aktibo eta pasiboa) estima litezke. Hau izango litzake aurrekontuen amaiera, guk espero dugunaren arabera zer egoeratan egongo garen.

Aurrekontu malgua: Egoera adatzen den bakoitzean aurrekontua aldatu egin beharko da (aurrekontu sinpleak errazak izango dira aldatzea baina konplexuak zailak). Beraz aurrekontu malguan. bereiztu egingo dira kostu finko eta aldakorrak, bereizketa hori eginez aurrekontu guztia berriz egin beharrean, guk jakin dezakegu edozein jarduera aldaketaren aurrean kostu finkoak ez direla aldatuko eta kostu aldakorrak nola aldatuko diren, horrela automatikoki egingo dira egokitzapenak.

ESTANDARRAK

Aurrekontu zehatzagoak dira. Sail eraginkorretan ematen diren kostuak dira. Sail eraginkorretan ematen dira eragiketak errepikagarriak direlako (dirutxo bat aurrezteak eragiketa batean eragin handia izan dezake).

Estandarrak erabiltzearen abantailak:

- Sailen **eraginkortasuna neurtzeko** oso tresna ona da. Sailen eraginkortasuna hobetzen lagunduko digute.
- **Lan administratiboa gutxituko** dute gure administrazio kostua gutxituz. Lana errazten digu estandarrak aurrez ezarritako kostu edo prezio batzuk direlako eta ez dugu zertan dena kalkulatu beharrik berriro kontuak, fakturak, aurrekontuak… egiteko garaian.
- **Biltegiko kudeaketa erraztu** egiten dute: Biltegietan estandarrak erabilten baditugu beti benetako kopuruak izango digutu baloraketa estandarrean (ez fifo, lifo…) beraz biltegien baloraketa erraztuko da.
- **Desbideraketa kalkulatzea** ahabideratzen digu (garrantzitsua) eta desbideraketen azterketaren bitartez enpresaren kudeaketa hobetuko dugu , beraz kudeaketa kontabilitatean ezinbesteko izango da estandarrekin lan egitea. Diferentziak aztertuko dira eta erabakiak hartuko dira enpresaren kudeaketa hobetzeko.
- Enpresaren **emaitza aurreikusten** lagunduko digute (salmenta eta kostuen aurreikuspenarekin)
- **Lagapen prezioak ezartzeko** balio dute

Estandar motak:

- **Estandar hoberena**: Utopia, perfekzioa, gauzak %100ean ongi egitea da, akatsik gabe. Ez da gomendagarria, estandarra lor daiteken zerbait izan behar delako eta perfekzioa ez denez inoiz lortuko fustrazioa sortuko du.
- **Oinarrizko estandarra**: Enpresak e/lu begira ezartzen duen estandar bat da eta epe luzegi horretan dago akatsa hain zuzen. Estandarra hurrengo ekitaldirako ezartzea gomendatzen da. Ezartzeko garaian e /labur batetara ezarri beharreko estandarra litzatzeke.
- **Batezbesteko estandarra**:Esperientziaren arabera ezarritako estandar bat litzateke. Soilik esperientzian oinarritzen bagara aurreko ekitaldietan egindako gauza berbera egingo dugu, akatsak barne. Beraz, esperientzia abiapuntu bezala ona da baina esperientziatik ikasi nahi bada hobetzeko.(kud.kont. helburua kud. hobetzea)
- **Estandar arrunta**(gurea): datorren ekitaldirako ezartzen den estandar bat da (epe/lab). Esperientzia eta gure baliabideen aprobetxamendu razional bat egitea du helburu, hau da, baliabideak era razionalean aprobetxatzea posible diren helburuak ezarriz (utopia edo perfekzioetan nahastu gabe).

Estandarrak orain arte ikasitako kontzeptu guztietan barnera daitezke (kostu zuzen estandarra, produktuaren …)

Beste estandar mota batzuk (lehengaien kasuan).

- **Estandar fisikoa**: zenbat kg lehengai, h.... behar diren produktu bat egiteko. Hauek ezartzeko garaian enpresako teknikariek izango dute hitz nagusia, hauen laguntza beharrezkoa izanik.
- **Estandar ekonomikoa**(baloraketa): kg bakoitzaren edo ordu bakoitzaren espero dugun kostua zein izango den.
- **Estandar global edo totala** (estandarra guztira): estándar fisikoa * estándar ekonomikoa

Estandarrak nola ezarri:

Lehengaien kontsumoa:

- *Estandar fisikoa*: Lehenengo gure ekoizpena masiboa edo artisauzkoa ote den ikusi (mekanizatua edo eskuz).
  - Esperientzia soilaren arabera ezar dezakegu (lehendik egina badago lana badakigu zenbat kg...)
  - Saio edo proba "fisiko" bat egitea ea produktu bat ekoizteko zenbat lehengai behar den jakiteko
  - Saio teorikoak egitea: saio fisikoak egitea merezi ez duenean (horma bat egiteko ladrillu kopurua), saio teoriko bat egingo dugu, lana egin partez kalkulu teoriko bat eginez.
- *Estandar ekonomikoa (baloraketa)*: lehengaiaren merkatuko prezioa izango da erreferentzia nagusia eta gure itxaropenen arabera handitu edo gutxituko dugu. Kontuan hartu prezioan zein kontzeptu barneratu behar ditugun (edozein sistema aukera daiteke baina konparaketa egiteko sistema berdinarekin egin beharko dugu). Erosketa prezioan barneratzen ez diren kontzeptuak hornikuntza gastu berezi bezala barneratuko dira, beraz bietako batura izango da hornikuntza gastu bereziak guztira (ez errepikatu eta ez ahaztu).

Hornikuntza gastu berezien estandarrak

- **Estandar Fisikoa:** lehengaien kontsumoaren estandar ifsikoaren berdina izango da, kontzeptu berbera.
- **Estandar ekonomikoa**: biltegiaren kudeaketak edo biltegian gaiak izateak suposatzen duen kostua da, Hornikuntza gastu berezien banaketak egin beharko ditugu gehinetan, bi irizpide daude banaketarako: kopuru fisikoen arabera edo kopuru ekonomikoen arabera (gure izakin desberdinek duten diru balioaren arabera)

Eskulan zuzeneko estandarrak:

Lehendabizi estándar globala kalkulatuko da, eta gero fisikoa jakinez ekonomikoa aterako da.

Estandar globala ateratzea erraza da (langile kostu estandarra): soldata gordin estandarra +enpresaren kargurako gizarte segurantza estandarra

Ateratakoa /egitea espero dugun orduak (estándar fisikoa)= estándar ekonomikoa

- **Estandar fisikoa:**
  - Esperientzia (lehenago egindako lanaren iraupena), abiapuntu bezala oinarritzat hartuko da baina aurrera egiteko joera izanik.
  - Konometrajea: (ikusi zenbat h behar diren lan hori egiteko).
  - Taylorren taulak: konometraje partzialak dira, lana zatika konometratuko da zehaztasunez (besoa luzatu 1s...), antolaketa razionalago bat eginez gero eragiketa bakoitzean denbora aurreztuko zen ikusteko.
  - Muestreo bat egitea: konometraje bat egitea da langileak jakin gabe, baldintza normaletan lanean daudenean. Denbora errealagoa ematen digu.

Zeharkako kostuen estandarrak:

Gomendioa estandarra kostuaren sorreran aplikatzea da, edozein banaketa egin aurretik. Zeharkako kostuetan askotan banaketa traketsak izaten dira eta banaketa horrek desitxura dezake gure estandarren kalkulua.

Estandar bat aldatzea noiz komeni da

Estandar bat ez da inoiz ekitaldian zehar aldatuko, hurrengo ekitaldirako aldatuko da.

Estandarra aldatzeko arrazoiak:

- Estandarra gaizki ezarri baldin badugu
- Kanpoko arrazoiak edo enpresa barneko arrazoiak daudenean: estandar bat ezarri dugu eta ezin badugu bete (krisia: kanpo arazoa, behin betiko arazoa bada estandarra aldatuko da baina behin behinekoa bada ez da aldatuko. Elurtea: Barne arazoa, behin behinekoa bada ez da aldatuko estandarra, behin betikoa bada (baldintzak aldatu dira konbenioan...) aldatzea komeniko litzateke.